

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA
KONTSEILUAREN 2015/760 ERREGELAMENDUA (EB)
2015eko apirilaren 29koa epe luzerako inbertsio-funts
europarrei buruzkoa (EEEren esparruan erabiltzeko
testua) (1)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, 114. artikulua, Europako Batzordearen proposamena aztertu dute,

Legegintzako egintzaren proiektua aurrez parlamentu nazionaleri igorri zaie, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute (2),

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute (3),

Legegintzako prozedura arruntarekin bat etorritik (4), alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

1. Epe luzeko finantzaketa ezinbesteko tresna da Europako ekonomia hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailearen bidetik eramateko, Europa 2020 Estrategiarekin bat etorritik, lehiakortasun eta enplegu maila altuko hazkundera, alegia, arrisku sistemikoak izateko joera txikiagoa izango duen bihurtzeko ekonomia sendagoa eraikitzeko. Epe luzerako inbertsio-funts europarrei esker (aurrerantzean «ELIFE»), finantzaketa iraunkorra eskaini zaie azpiegiturako hainbat proiektuari, kotizatu gabeko enpresei edo kotizatutako enpresa txiki eta ertainei (ETE), zor- edo kapital-tresnak jaulkitzen badituzte eta horietarako ez badago erraz identifika daitekeen eroslerik. Horrelako proiektuak finantzatzeko, ELIFEak lagungarriak dira Batasuneko ekonomia erreala finantzatzeko eta politikak garatzeko.
2. Eskaerari dagokionez, ELIFE-ek diru-sarrerara iturri seguru eta egonkorra eskaini ahal diete pentsio-kudeatzaileei, aseguru-enpresei, fundazioei, udalerriei eta aldizkako pasiboei eta pasibo errepikakorrekin aurre egin behar dieten beste erakunde batzuei, ondo araututako egituren esparruan epe luzeko etekinak lortu nahi badituzte. Balore higigarrietako inbertsioek baino likidezia gutxiago eragiten badute ere, ELIFE-ek diru-sarreraren iturri egonkorra eskaini ahal diete ELIFE batek eskain dezakeen aldizkako kutzako fluxua daukaten inbertitzaile partikularrei. Horrez gain, ELIFE-ek denboran zehar kapitalaren balioa handitzeko aukera paregabea ekar dezakete diru-sarreraren etengabeko fluxua jasotzen ez duten inbertitzaileen kasuan.

(1) *Testu hau dokumentazio-tresna bat baino ez da, ez du eragin juridikorik. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du testuaren erantzukizunik bere gain hartzen. Egin beharreko ekintzen benetako bertsioak, beren atarikoak barne, dagokion aldizkari ofizialean argitaratutakoak dira.*

(2) 67. DOK., 2014-03-06koa, 71. or.

(3) 126. DOK., 2014-04-26koa, 8. or.

(4) *Europako Parlamentuaren 2015eko martxoaren 10eko posizioa (oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu) eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 20ko Erabakia.*



3. Baliteke zenbait proiekturen kasuan eskuragarri daukaten finantzaketa txikiegia izatea, esaterako garraio-azpiegituren kasuan, energia jasagarria ekoitzi edo banatzean, gizarte-azpiegiturretan (etxebizitzak edo ospitaleak), baliabide eta energia erabilera murrizten duten teknologia eta sistema berriak garatzean, edo ETEak hedatzean. Krisialdi finantzarioak agerian utzi duen moduan, banketxeen finantzaketa uztartzea beste finantzaketa-iturri anitz batzukekin, kapitalen merkatuak neurri handiagoan mugiaraz dezaketen iturriekin, alegia, lagungarria izan daiteke finantzaketa-gabeziak konpontzeko. ELIFE-ek betebeharrak erabakigarria izan dezakete horretan, eta kapitala mugiaraz dezakete hirugarren herrialdeetako inbertitzaileak erakarri.
4. Erregelamendu honen helburua epe luzerako inbertsio europarrak ekonomia errealean bultzatzea da.

Hirugarren herrialdeetan azpiegiturretan, proiektuetan eta enpresetan epe luzerako inbertsioak egiteari esker, ELIFE-ek kapitalak jaso ditzakete, eta horrek onurak eragingo lituzke Europako ekonomian. Horrenbestez, horrelako inbertsioak ez dira debekatu behar.

5. ELIFE-ek buruzko arauak ezarriko dituen erregelamendurik ez dagoenez, estatu mailan neurri dibergenteak har daitezke; horren ondorioz, ziurrenik, lehiakortasuna faltsutu egingo litzateke, inbertsioen babes-neurrien arteko desberdintasunak direla medio. Zorroaren osaeraren, dibertsifikazioaren eta baliagarriak diren aktiboen arloan aplikatu beharreko betekizun nazionalen arteko aniztasunak, bereziki lehengaietan inbertsioak egiteari dagokionez, oztopoak sorrarazten ditu kotizatu gabeko enpresak eta aktibo errealek lantzen dituzten inbertsio-funtsen mugaz gaindiko merkaturatzea bideratzeko; izan ere, inbertitzaileak ez daukate jasotzen dituzten inbertsio-eskaintzak erraz erosteko aukerarik.

Betekizun nazionalak desberdinak izateak inbertitzaileen babes-maila ere desberdina izatea eragiten du. Halaber, inbertsio-tekniken gaineko betekizun nazionalen dibergentziak tarteko desadostasunak sor daitezke inbertitzaileen babes-mailan, hain zuzen ere baimendutako zor-mailak, eratorritako finantza-tresnak erabiltzea, laburrean egindako salmentei aplikagarriak zaizkien arauak edo baloreen finantzaketa-eragiketarako tarteko. Horrez gain, betekizun nazional dibergenteak aplikatuz gero itzulketa edo jabetza-aldien arloetan, orduan ezinezkoa da kotizatu gabeko aktiboetan inbertsioak egiten dituzten funtsen mugaz gaindiko salmenta. Ziurgabetasun juridikoa areagotzean, aipatutako dibergentziek inbertitzaileen konfiantza hautsi dezakete funts horietan inbertsioak egiteko aukera aztertzerakoan, eta epe luzeko zenbait inbertsio-aukeren artean aukeratzeko benetan daukaten tartea murriztu egiten da. Horrenbestez, Erregelamendu honetarako oinarri juridiko egokia Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 114. artikulua da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak hala interpretatu baitu maiz.

6. Arau uniformeak behar dira bermatzeko ELIFE-ek Batasunaren lurralde osoan produktu-profil koherente eta egonkorra aurkeztuko dutela. Hain zuzen ere, barne merkatuak funtzionamendu zuzena izatea eta inbertitzaileek babes-maila altua izatea bermatzeko ezinbestekoa da arau uniformeak ezartzea ELIFE-en funtzionamenduari dagokionez, bereziki erabili ahalko diren zor eta inbertsio-tresnak eratzekoan, epe luzeko aktiboen aurrean esposizioak bere gain hartzeko, esaterako kotizatutako ETE-ek eta kotizatu gabeko enpresek jaulkitako zor- edo kapital-tresnak, baita aktibo errealek ere. Halaber, ELIFE-en zorroari buruzko arau uniformeak behar dira, horien artean aldizkako diru-sarrerak sorrarazi nahi dituztenek inbertsio-aktibo egokien zorro dibertsifikatua izatea bermatzeko, kutzako fluxu erregular hori eskaintze aldera. ELIFE-ek lehen urratsa osatzen dute kapitalak erakartzeko barne merkatu integratua sortze aldera, ekonomia europarrean epe luzerako inbertsioetarantz bideratzeko. Epe luzerako inbertsioen barne merkatuak ongi funtziona dezan ezinbestekoa da Batzordeak jarrai dezan epe luzerako kapitalak mugen gainetik erakartzea eragotzi dezaketen balizko oztopoen ebaluazioa egiten, inbertsio horien tratamendu fiskala ekar dezaketen oztopoak barne.
7. Funtsezkoa da ELIFE-en funtzionamendu-araudia zuzenean funts horien kudeatzaileei aplikagarria izatea bermatzea, bereziki baimendutako zorroaren osaerari eta inbertsio-tresnei dagokienez; hortaz, araudi berria erregelamendu baten bitartez eratu behar da. Halaber, horrela «ELIFE» izena erabiltzeko baldintzen uniformetasuna bermatu egingo da,



betekizun nazional dibergenteak sortzea saihestuko baita. Komenigarria da ELIFE-en kudeatzaileek Batasunaren lurralde osoan arau berberak erabiltzea, inbertitzaileek funts horietan duten konfiantza ere indartzeko eta ELIFE izenaren etengabeko fidagarritasuna bermatzeko. Aldi berean, arau uniformeak aplikatuz murriztu egiten da ELIFE-ei aplikagarriak zaizkien araudi-betekizunen konplexutasuna. Arau uniformeei esker, halaber, murriztu egiten da kotizatutako eta kotizatu gabeko enpresen eta aktibo errealen kategoria parekagarrietan inbertsioak egiten dituzten funtsen betekizun nazional dibergenteak betetzeak kudeatzaileei eragindako kostua. Bereziki gertatzen da mugaz gaindiko kapitalak erakarri nahi dituzten ELIFE-en kudeatzaileen kasuan. Halaber, arau uniformeak sortzea lagungarria da lehiakortasunaren edozein faltsutze ezabatzeko.

8. ELIFE-ei buruzko arau berriek lotura estua daukate Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2011/61/EB Zuzentarauarekin ⁽¹⁾, zuzentarau horrek Batasunean inbertsio-funts alternatiboan (aurrerantzean «IFA») kudeaketa eta merkaturatzea arautzen duen esparru juridikoa eratu baitzuen. Definizioz, ELIFEak inbertsio-funts alternatiboan kudeatzaileek kudeatutako EBko IFAk dira (aurrerantzean «IFAK»), 2011/61/EB Zuzentarauaren arabera bat etorritik baimenduta badaude.
9. 2011/61/EB Zuzentarauak, bidenabar, hirugarren herrialdeetarako araubide graduala ere aurreikusi du, EBtik kanpoko IFAKak eta EBtik kanpoko IFAk arautzen dituen; ELIFE-ei buruzko arau berriek irismen mugatuagoa daukate, epe luzerako inbertsio-produktu berriaren dimentsio europarra nabarmentzen duena. Hala, EBko IFAk baino ez dira baliagarriak izango ELIFE bihurtzeko, 2011/61/EB Zuzentaruaren definitu bezala, eta soilik aipatutako zuzentarauarekin bat etorritik baimendutako EBko IFAk batek kudeatzen baditu.
10. ELIFE-ei aplikagarriak zaizkien arau berriek indarrean dagoen araudi-esparrua izan behar dute oinarri, 2011/61/EB Zuzentarauak eta berau aplikatzeko hartutako egintzek erazten dutena. Horrenbestez, ELIFE-en produktuei buruzko arauak modu osagarrian aplikatu behar dira, indarrean dagoen Batasuneko Zuzenbidean ezarritakoaz gain. Hain zuzen ere, kudeaketa eta merkaturatzeari buruz 2011/61/EB Zuzentaruaren ezarritako arauak aplikatu behar zaizkie ELIFE-ei. Halaber, zerbitzuen mugaz gaindiko prestazioari eta kokatzeko askatasunari buruzko arauak, 2011/61/EB Zuzentarauak ezarritakoak, ELIFE-en mugaz gaindiko jarduerari aplikatu behar zaizkie. Arau horiek Batasun osoan ELIFEren mugaz gaindiko merkaturatzea arautzeko berariaz pentsatutako merkaturatze-arloko arauekin osatu behar dira, txikizkako inbertitzaileen zein profesionalen artean.
11. ELIFE gisa merkaturatu nahi duten EBko IFA guztiei arau uniformeak aplikatu behar zaizkie. Helburu hori lortu nahi ez duten EBko IFAk ez dira arau horien bitartez lotuta egon behar, hala, kasuan kasuko abantaila berariaz uko eginez. EBtik kanpoko IFAk eta balore higigarrietan inbertitzen duten inbertsio kolektiboko erakundeak (aurrerantzean «BHIKE») ez dira ELIFE gisa merkaturatzeko baliagarri modura hartu behar.
12. ELIFE-ek jarduna arautzen duten arau harmonizatuaren arabera erabiltzea bermatze aldera, agintaritzak eskudunek ELIFEak baimentzea eskatu behar da. Horrenbestez, IFAKak berrikusi eta baimentzeko 2011/61/EB Zuzentarauak ezarritako prozedura harmonizatuak osatu egin behar dira ELIFEak baimentzeko berariazko prozedura batekin. Prozedurak finkatu behar dira funts horiek soilik 2011/61/EB Zuzentarauarekin bat etorritik baimendutako eta ELIFEak kudeatzeko baliagarriak diren EBko IFAKek kudea ditzaten. ELIFE-ek haien jarduna arautzen duten arau harmonizatuak aplikatuko dituztela bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartu behar dira. Berariazko baimen-prozedura aplikatu behar da ELIFEren barne kudeaketa egitean eta ez denean kanpo IFAKik izendatzen.

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/61/EB Zuzentaruak, 2011ko ekainaren 8koa, inbertsio funts alternatiboan kudeatzaileei buruzkoa; horren bitartez, 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentaruak eta 1060/2009 Erregelamendua (EE) eta 1095/2010 Erregelamendua (EB) aldatu egin ziren (DO L 174, 2011-07-01ekoa, 1. or.).



13. EBko IFAek hainbat forma juridiko izan ditzakete, eta horrek ez die nahitaez izaera juridikoa ematen; horrenbestez, ulertu behar da ELIFE-ei jardun zehatza eskatzen dieten xedapenak ELIFE-en kudeatzaileari buruz ari direla bere kabuz jarduteko gaitasunik ez daukan EBko IFA gisa eratuta dagoenean; izaera juridiko propiorik ez izatearen ondorioz ezin du bere kabuz jardun.
14. ELIFEak epe luzerako inbertsioetara bideratzea eta Batasunaren ekonomiaren hazkunde jasangarria finantzatzen lagungarri izatea bermatze aldera, funts horien zorroari buruzko arauak eskatu behar dute ELIFE-en inbertsioak izateko baliagarriak diren aktiboen kategoriak eta baliagarritzat jotzeko baldintzak argi identifikatzea. Komenigarria da ELIFE-ek gutxienez ondarearen %70 inbertitzeko baliagarriak diren aktiboetan inbertitzea. ELIFE-en integritatea bermatze aldera komenigarria da, halaber, inbertsio-helburuak eta estrategia arriskua jar dezaketen zenbait eragiketa finantzario egitea debekatzea, epe luzerako inbertsioetan ibiltzen den funts batetik espero diren ez bestelako arriskuak eragiten baitituzte. Epe luzerako inbertsioan argi eta garbi fokalizatzea lortze aldera, eta inbertsio-estrategia ezohikoekin ohituta ez dauden txikizkako inbertitzaileentzat erabilgarria dela kontuan hartuz, ELIFE-ek ez dute eratorritako finantza-tresnetan inbertsioak egiteko baimena izan behar, salbu eta kasuan kasuko inbertsioei dagozkien arriskuak estaltzeko bada. Lehengaiak izaera likidoa daukatenez, eta eratorritako finantza-tresnek zeharka lehengaien eraginpean egotea ekartzen dutenez, ez da beharrezkoa lehengaietan egindako inbertsioek inbertitzailearen epe luzerako konpromisoa izatea; horrenbestez, inbertsioak egiteko baliagarriak diren aktiboetatik baztertzea komeni da. Arrazoibide hori ez zaie aplikatzen azpiegituretan edo lehengaiak lotutako sozietateetan egindako inbertsioei, edo emaitzak zenbait lehengaien bilakaerari lotuta daudenean, esaterako nekazaritza-ustiategiak, nekazaritzako lehengaien kasuan, edo zentral elektrikoak energia-lehengaien kasuan.
15. Epe luzerako inbertsioaren definizioa zabala da. Inbertsiorako baliagarriak diren aktiboak, oro har, likidatu egin behar dira, iraupen jakin bateko konpromisoak eskatzen dituzte eta epe luzeko profil ekonomikoa izan ohi dute. Inbertsiorako baliagarriak diren aktiboak ez dira balore higigarriak eta, horrenbestez, ez daukate bigarren mailako merkatuen likidezia sarbiderik. Askotan iraupen jakin bateko konpromisoak eskatzen dituzte eta horren merkaturatzeko ahalmena murrizten du. Hala ere, kotizatutako ETE-ek bigarren mailako merkatura sartzeko eta likidezia arazoak izan ditzaketela aintzat hartuz, zorroko enpresa onargarriak ere kontuan hartu behar dira. ELIFE-ei dagokien inbertsioko ziklo ekonomikoak epe luzerako izaera dauka, kapitalen konpromiso altuei eta etekinak sortzeko beharrezko epe luzeak direla medio.
16. ELIFE-ei baimena eman behar zaie inbertsioetarako baliagarriak diren aktibo ez beste aktibo batzuetan inbertsioak egiteko, kutxako fluxua eraginkortasunez kudeatzeko beharrezkoak diren neurrian, eta betiere bateragarria bada epe luzerako inbertsio-estrategiarekin.
17. Inbertsioetarako baliagarriak diren aktiboen artean sartu behar dira partaidetzak, esaterako kapital- edo kuasikapital-tresnak, zorroko enpresa onargarrien zor-tresnak eta horiei emandako maileguak. Horrez gain, beste funts batzuetako partaidetza jaso behar dute, hain zuzen ere kotizatu gabeko enpresetan inbertsioak bezalako aktiboak lantzen dituztenak, zor- edo kapital-tresnak jaulkiz; horietarako ez da beti erraz identifikatzeko moduko eroslea existitzen. Aktibo errealak zuzenean edukitzea, salbu eta titulizazio xede izan badira, baliagarri diren aktibo mota gisa hartu behar da, betiere aurreikus daitezkeen kutxako fluxuak eragiten baditu, aldizkakoak izan zein ez, kutxako fluxu deskontatuen balorazio-metodo batean oinarrituz eratu eta baloratu daitezkeenari dagokionez. Aktibo horiek azpiegitura sozialak jaso ahalko lituzkete, aurreikus daitezkeen etekina sortzen dutenak, esaterako garraio-, komunikazio- eta energia-azpiegiturak, baita hezkuntza, osasuna eta ongizatea laguntzekoak edo industria-instalazioak ere.

Bestalde, artelan, eskuizkribu, ardo-erreserba edo bitxigintzako aktiboak ez dira baliagarri gisa jo behar, normalean ez dutelako aurreikus daitezkeen kutxako fluxurik sorrarazten.



18. Inbertsiorako baliagarriak diren aktiboek 10.000.000 eurotik gorako balioa daukaten aktibo errealek izan behar dituzte, mozkin ekonomiko eta soziala sorrarazten dutenak. Horrelako aktiboek azpiegiturak, jabetza intelektuala, ontziak, ekipamendua, makineria, aireontziak edota material gurgilduna eta jabetza higiezinak izan behar dituzte. Etxebizitza edo merkataritza-jabetzetan inbertsioak egitea baimendu behar da, betiere Batasunaren kohesio-, eskualde- edo energia-politiketan edo hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailean lagungarri izateko xedea lortzea badute helburu. Horrelako jabetza higiezinetan inbertsioak egitea argi eta garbi dokumentatu behar da, jabetza horietan epe luzerako inbertsioak egiteko konpromisoa frogatze aldera. Erregelamendu honen helburua ez da espekulazio-izaerako inbertsioak sustatzea.
19. Azpiegituren proiektuen neurria dela medio, denbora-tarte luzeetan inbertitu beharreko kapital-bolumenak ere handiak izan behar dira. Azpiegituren proiektu horiek barne hartu behar dituzte, besteak beste, eraikin publikoak (esaterako eskolak, ospitaleak eta espetxeak), azpiegitura sozialak (etxebizitza sozialak, esaterako), garraio-azpiegiturak (errepideak, garraio kolektiboko sistemak edo aireportuak), energia-azpiegiturak (esaterako energia-sareak, klima-aldaketa arintzeko eta horri egokitzeko proiektuak, zentral elektrikoak edo gas-hodiak eta oliobideak), ura kudeatzeko azpiegiturak (ura hornitzeko sistemak, estolderia edo irrigazio-sistemak), komunikazio-azpiegiturak (esaterako, sareak) eta hondakinak kudeatzeko azpiegiturak (adibidez bilketa- edo birziklatze-sistemak).
20. Ulertu behar da kuasikapital-tresnek finantza-tresnen arteko mota bat eratzen dutela, kapitala eta zorra uztartzen dituztela eta etekinek lotura dutela zorroko enpresa onargarriaren galera edo mozkinekin; kiebra joz gero etekinak itzultzea ez dago erabat bermatuta. Tresna horiek hainbat finantzaketa-tresna barne hartzen ditzute, esaterako mendeko maileguak, ekarpen pasiboak, partaidetza-maileguak, gozamen-eskubideak, betebeharrak bihurtzeko aukera ematen duten ziurtagiridun bonoak («warrants»).
21. Indarrean dauden merkataritza-jardunei erreparatuz, baimendu behar da ELIFE-ek zorroan enpresa onargarri baten akzioak, zirkulazioan daudenak, erostea enpresa horretako akziodunei. Bidean, funtsak erakartzeko aukerak ahal bezain zabalak izatea bermatze aldera, beste ELIFE batzuetan inbertsioak egitea ere baimendu behar da, arrisku-kapitaleko funts europarretan (AKFE), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 345/2013 Erregelamenduaren (EB) arabera arautzen badira (1), eta gizarte-ekintzaitzako funts europarretan (GEFE) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 346/2013 Erregelamenduaren (EB) arabera arautzen badira (2). Inbertsioak zorroan enpresa onargarrietan desegitea saihesteko, soilik baimenduko da ELIFE-ek beste ELIFE batzuetan inbertitzea, AKFE eta GEFE-etan, horiek ez badute ondarearen %10 baino gehiago beste ELIFE batzuetan inbertitu.
22. Baliteke finantza-enpresetara jotzea beharrezkoa izatea, inbertitzaile desberdinen ekarpenak antolatu eta multzokatzeko, azpiegitura-proiektuetara bideratutako izaera publikoko inbertsioak barne. Horrenbestez, ELIFEak baimendu behar dira inbertsioetarako baliagarriak diren aktiboetan finantza-enpresen bitartez inbertitu dezaten, betiere enpresa horiek epe luzerako proiektuak finantzatzen zein ETE-en hazkundera ari badira lanean.
23. Kotizatu gabeko enpresen kasuan, zaila izan daiteke kapital-merkatuetara iristea eta hazkundera eta hedapena finantzatzea. Finantzaketa lortzeko ohiko moduetako bat finantzaketa pribatua izan ohi da, maileguen bitartez edo kapitalean partaidetzak izanik. Tresnak horiek, berez, epe luzerako inbertsioak ordezkatzeko dituztenez, ELIFE-ek eman ditzaketen kapital «jasankorrek» behar dituzte. Horrez gain, kotizatutako ETE-ek askotan oztopo nabarmenak izaten dituzte epe luzerako finantzaketa lortzeko, eta ELIFE-ek finantzaketa-iturri alternatibo baliagarriak eskaini ditzakete.

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 345/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko apirilaren 17koa, arrisku kapitaleko funts europarrei buruzkoa (DO L 115, 2013-04-25ekoa, 1. or.).

(2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 346/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko apirilaren 17koa, gizarte ekintzaitzako funts europarrei buruzkoa (DO L 115, 2013-04-25ekoa, 18. or.).



24. Erregelamendu honetan jasotako epe luzerako aktiboen kategoriek, horrenbestez, zor- edo kapital-tresnak jaulkitzen dituzten kotizatu gabeko enpresak barne hartu behar dituzte horietarako ez badago erraz identifika daitekeen eroslerik eta gehienez 500.000.000 euroko kapitalizazioa daukaten kotizatutako enpresak.
25. ELIFEko kudeatzaileak zorroan enpresa onargarri batean partaidetza baldin badauka, funtseko inbertitzaileen interesen gaintik bere interes propioak jartzeko arriskua dago. Horrelako interes-gatazkak saihesteko eta enpresa-gobernantza egokia bermatzeko, kudeatzailearekin harremanik ez daukan aktiboetan baino ez du inbertitu behar ELIFEK, salbu eta ELIFEko kudeatzaileak kudeatutako beste ELIFE, AKFE edo GEFE batzuen akzioetan inbertitzen badu.
26. ELIFEko kudeatzaileei malgutasun maila jakin bat emate aldera funtsen inbertsioan, epe luzerako inbertsioen ez bestelako aktiboak negoziatzeko baimena eman behar da, gehienez ELIFEko ondarearen %30era arte.
27. ELIFE-ek arriskuak hartzea mugatze aldera, kontraparteko arriskua murriztu egin behar da, funts horien zorroan dibertsifikazio-betekizun argiak aplikatuz. Burtsatik kanpoko eratorri guztiek (OTC) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012 Erregelamenduan (EB) ezarritakoaren mende egon behar dira (1).
28. Beste ELIFE batean inbertitu duen ELIFE batek horren edo erakunde jaulkitzaile baten kudeaketan eragin nabarmena izatea saihesteko, ELIFE batek inbertsio berean gehiegizko kontzentrazioa izatea saihestu behar da.
29. Funtzaren bizitzan zehar ELIFEko kudeatzaileek ondare gehigarria bereganatzea ahalbidetze aldera, eskudiruko maileguak jasotzea baimendu behar da, ELIFEko ondarearen %30ean, gehienez. Horri esker inbertitzaileei eskaintako errendimendua areagotu egingo da. Dibisen desfase-arriskua ezabatze aldera, ELIFEk maileguak hartzean soilik kudeatzaileak aktiboa erosteko balioko duen txanpona erabili ahalko da. Banku-jarduera ilunak saiheste aldera, ELIFEk maileguan hartutako eskudirua ezin da erabili zorroko enpresa onargarrii maileguak emateko.
30. ELIFE baten inbertsioak epe luzekoak direnez eta likidatu egin behar direnez, ELIFEko kudeatzaileek inbertsio-mugak aplikatzeko aski denbora izan behar dute. Inbertsioen ezaugarri berezi eta bereizgarriak aintzat hartu behar badira ere, aipatutako mugak aplikatzeko denbora ezin da izan bost urte baino gehiagokoa ELIFE gisa baimendu den datatik edo ELIFEren bizitza-aldiaren erdia, lehenago gertatzen dena.
31. Zorro-izaera dutenez, eta epe luzerako aktiboen kategoriarantz orientatuta daudenez, ELIFEak aurrezki pribatuak ekonomia europarrerantz bideratzeko daude diseinatuta. Bidenabar, ELIFEak inbertsio-ibilgailu gisa pentsatu ziren, horren bitartez Europako Inbertsio Bankuaren Taldeak (EIB) azpiegitura europarren edo ETE-en finantzaketa bideratzeko aukera izan dezan. Erregelamendu hau dela bide, ELIFEak EIBren Taldearen helburuaren aurrean erantzuten duten inbertsio kolektiboko tresna gisa egituratzen dira, hain zuzen ere Batasunaren intereserako izango den epe luzerako inbertsioetarako barne merkatu egonkor eta orekatua garatzea lortzeko. Epe luzerako aktiboen kategorietan biltzen denez, ELIFE-ek dagokien lehentasun-tresnaren betebeharra bete dezakete Batzordearen 2014ko azaroaren 26ko komunikazioan ezarritako Europarako Inbertsio Planeko helburuak betetzeko.
32. Batzordeak EIBren finantzaketari lotutako ELIFEko eskaera guztietarako prozesuak dinamizatu eta lehenetsi behar ditu. Batzordeak, horrenbestez, ELIFEk EIBren finantzaketa-eskabideei buruzko txostenak eta irizpenak ematea dinamizatu behar du.

(1) *Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 648/2012 Erregelamendua (EB), 2012ko uztailaren 4koa, burtsatik kanpoko eratorriei, kontrapartidako erakunde zentrali eta eragiketen erregistroei buruzkoa (DO L 201, 2012-07-27koa, 1. or.).*



33. Horrez gain, estatu-kideek eta tokiko eta eskualde-agintaritzek interesa izan dezakete balizko inbertitzaileek eta, oro har, publikoak ELIFE-en berri izan dezaten.
34. Nahiz eta ELIFE-ek ez duten muga-egunaren aurretik itzulketa-eskubiderik ematen, ez da debekatu behar ELIFE batek partaidetzak edo akzioak negoziatzeko onartzea eskatzea, merkatu arautu batean edo negoziazio-sistema multilateral batean; hala, inbertitzaileei partaidetzak edo akzioak ELIFEa iraungi aurretik saltzeko aukera ematen zaie. ELIFEko eratze-tresnek edo estatutuek ez dute eragotzi behar partaidetzak edo akzioak merkatu arautu batean edo negoziazio-sistema multilateral batean negoziatzeko onartzea; ez diete inbertitzaileei debekatu behar partaidetzak edo akzioak erosi nahi dituzten hirugarrenei modu librean lagatzea. Horrela, bigarren mailako merkatuak foro garrantzitsu gisa sustatu nahi dira, txikizkako inbertitzaileek ELIFE-etako akzio edo partaidetzak saldu eta erosteko aukera izan dezaten.
35. Inbertitzaile partikularrek ELIFE batean inbertitzeko interesa izan dezaketen arren, epe luzerako proiektuetan egindako inbertsio gehienak likidatu beharrak eragotzi egiten du funts horiek inbertitzaileei aldizka itzulketak egitea eskaintzea. Horrelako aktiboetan inbertsioak egiten dituenak, berez, inbertsioaren epe osorako konpromisoa hartzen du. ELIFEak, horrenbestez, bukatu aurretik aldizkako itzulketarik eskaintzen ez den modu jakin batean egituratu beharko dira.
36. Inbertitzaileei eta, bereziki, txikizkako inbertitzaileei pizgarriak eskaintzeko, ondarea ez badute horrenbeste denborarako konprometitu nahi, ELIFE-ek inbertitzaileei aurretik itzulketa-eskubideak eskaintzeko gaitasuna izan beharko lukete, baldintza jakin batzuetan. Horrenbestez, ELIFEak itzulketa-eskubideekin edo horrelako eskubiderik gabe ezartzen duen erabakitze gaitasuna izan behar du ELIFEko kudeatzaileak, ELIFEn inbertsio-estrategikoarekin bat etorritz. Itzulketa-eskubideen araubidea ezarri gero, eskubide horiek eta ezaugarri nagusiak alde aurretik argi definitu beharko dira eta ELIFEko araudian edo eratze-dokumentuetan ageri beharko dira.
37. ELIFEa iraungitzean inbertitzaileek akzioak edo partaidetzak berreskuratu ahal izateko, kudeatzaileak denboraz ekin beharko dio ELIFEko aktiboen zorroa saltzeari, balioa behar bezala egitea bermatzeko. Desinbertsio-programa antolatua definitzean, ELIFEko kudeatzaileak aintzat hartu beharko ditu inbertsioen iraungitze-profilak eta ELIFEn inbertsioen helburu izandako aktiboetarako eroslea aurkitzeko denbora-tartea. Likidazio-aldi horretan inbertsio-mugei eustea ezinezkoa denez, aldi hori hasterakoan aplikatzeari utzi behar zaio.
38. Txikizkako inbertitzaileek ELIFEra sarbide zabalagoa izate aldera, ELIFE batek jaulkitako akzio edo partaidetzetan inbertitu dezake BHIKE batek, partaidetza edo akzio horiek onargarriak badira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/65/EE Zuzentarauaren arabera (1).
39. ELIFE batek ondarea proportzionalki murrizteko aukera izan behar du bere aktiboetako bat besterendu badu, batez ere azpiegiturretan egindako inbertsioa denean.
40. ELIFE baten inbertsioa daukaten kotizatu gabeko aktiboak merkatu arautu batean kotizatzeko onartu ahalko dira funtsaren bizitza-aldian zehar. Hala izanez gero, aktiboak ez dira egongo Erregelamendu honetan ezarritako kotizatzeko onartuta ez egoteko betekizunaren mende. ELIFEko kudeatzaileek inbertitzeko baliagarriak ez diren aktiboak modu ordenatuan uztea baimentze aldera, aktiboak kalkulatzeko jarraitu ahalko dira, inbertitzeko baliagarriak diren aktiboen %70eko muga kalkulatu gabe hiru urtez.

(1) *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/65/EE Zuzentzua, 2009ko uztailaren 13koa, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko organismo jakin batzuei buruzko lege-, erregelamendu- eta administrazio-mailako xedapenak koordinatzen dituen (BHIKE) (DO L 302, 2009-11-17koa, 32. or.).*



41. ELIFE-en ezaugarri zehatzen berri eman ondoren, baita txikizkako inbertitzaileen eta profesionalena ere, garrantzitsua da gardentasun-betekizun irmoak finkatzea balizko inbertitzaileek iritzi argudiatua izateko eta arriskuen jabe izateko. 2011/61/EB Zuzentarauan jasotako gardentasun-betekizunez gain, ELIFE-ek liburuxka bat argitaratu behar dute; liburuxka horretan nahitaez jaso beharko da mota itxiko inbertsio kolektiboko erakundeek azaldu beharreko informazio guztia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/71/EE Zuzentarauaren (1) eta Batzordearen 809/2004 Erregelamenduaren (EE) arabera (2). ELIFE bat txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatze aldera, funtsezko datuen dokumentu bat argitaratzea nahitaezkoa izan beharko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1286/2014 Erregelamenduarekin (EB) bat etorri (3). Horrez gain, merkataritza-sustapeneko edozein agirik ELIFEren arrisku-profila berariaz agerrarazi behar du.
42. ELIFEak erakargarriak izan daitezke udalerrri, eliza, ongintzako erakunde eta fundazioak bezalako inbertitzaileentzat; bezero profesional gisa tratatzeko eskatzeko aukera izan behar dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentarauaren II. eranskineko II. sekzioko betekizunak betetzen dituztenean (4).
43. ELIFEak ez zaizkie soilik inbertitzaile profesionali zuzentzen, baita Batasun osoko txikizkako inbertitzaile guztiei ere; horrenbestez, 2011/61/EB Zuzentarauan dagoeneko finkatutako merkaturatze-betekizunei beste betekizun jakin batzuk gehitzea ezinbestekoa da, txikizkako inbertitzailearen babes maila egokia bermatzeko. Hala, harpidetzak egin, akziodun edo partaideei ordainketak egin, akzioak edo partaidetzak itzuli edo berrerosi eta ELIFE eta kudeatzaileek nahitaez eman beharreko informazioa ematea ahalbidetzeko zerbitzuak finkatu behar dira.

Horrez gain, esperientzia daukaten inbertitzaile profesionali dagokienez txikizkako inbertitzaileak desabantaila egoeran egotea saihesteko zenbait berme-neurri ezarri behar dira ELIFEak txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatzean. Txikizkako inbertitzaileei zuzendutako ELIFEak merkaturatu edo jartzean banatzaile bat erabiliz gero, banatzaile horrek bete egin beharko ditu 2014/65/EB Zuzentarauari eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 600/2014 Erregelamenduari (EB) dagozkien betekizunak (5).

(1) *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/71/EE Zuzendaraua, 2003ko azaroaren 4koa, 2001/34/EE Zuzendaraua aldatzen duena eta baloreak erosteko eskaintza publikoen edo baloreen kotizazioen onarpenaren kasuan argitaratu beharreko liburuxkari buruzkoa (DO L 345 2003-12-31koa, 64 or.).*

(2) *809/2004 Erregelamendua (EE), Batzordearena, 2004ko apirilaren 29koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/71/EE Zuzendaraua aplikatzeari buruzkoa, liburuxketan jasotako informazioari dagokienez, baita formatuari, erreferentzia bidez jasotzeari, liburuxka horiek argitaratzeari eta publizitatea hedatzeari dagokienez ere (DO L 149, 2004-04-30ekoa, 1. or.).*

(3) *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1286/2014 Erregelamendua (EB), 2014ko azaroaren 26koa, inbertsio minoristako produktu paketatuei eta aseguruetan oinarrituriko inbertsio-produktuei buruzko oinarritzko datuen dokumentuen gainekoa (DO L 115, 2013-04-25ekoa, 1. or.).*

(4) *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzendaraua, 2014ko maiatzaren 15ekoa, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa, eta 2002/92/EE eta 2011/61/EB zuzendarauak aldatzen dituena (DO L 173, 2014-06-12koa, 349 or.).*

(5) *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 600/2014 Erregelamendua (EB), 2014ko maiatzaren 15ekoa, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa eta 648/2012 Erregelamendua (EB) aldatu duena (DO L 173, 2014-06-12koa, 84 or.).*



44. ELIFEko kudeatzaileak edo banatzaileak beharrezko informazio oro izan behar du txikizkako inbertitzaileen denbora-helburuei, ezagutza eta esperientziari, finantza-egoerari, arrisku-joerari eta inbertsio-helburuei dagokienez, ELIFEa txikizkako inbertitzaileei zuzenduta merkaturatzeko egokia den ebaluatzeko, kontuan hartuz, besteak beste, ELIFEren inbertsio-estrategia aurreikusia eta bizitza-aldia. Halaber, txikizkako inbertitzaile bati jarritako edo eskainitako ELIFE baten bizitza-aldia 10 urte baino gehiagokoa denean, ELIFEren kudeatzaileak edo banatzaileak argi eta garbi eta idatziz adierazi behar du produktu hori agian ez dela egokia horrelako konpromisoari (likidatu beharreko epe luzerako konpromisoa) eutsi ezin dioten txikizkako inbertitzaileentzat.
45. Txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatzean, ELIFEko gordailuzainak 2009/65/EE Zuzentarauko xedapenak bete behar ditu, gordailuzain gisa jardun daitekeen erakunde baliagarriari dagokienez, aktiboak berrerabili eta erantzukizunaren salbuespen ezari buruzko araua.
46. Txikizkako inbertitzaileen babes indartzeko saiakera gisa, Erregelamendu honek modu gehigarrian aurreikusi du txikizkako inbertitzaileek, zorroa finantza-tresnekin eta eskudiru-gordailuekin osatu badute, berme gisa aurkeztu diren finantzaketa-tresnak kenduta, ez badute 500.000 euroko kopurua gainditzen, ELIFEko kudeatzaileak edo beste edozein banatzailek, egokitasun-testa egin ondoren eta inbertsio arloan aholkularitza egokia eman eta gero, bermatu egin beharko du txikizkako inbertitzaileak ez duela ELIFEren zorraren %10 baino gehiagoko kopuru globala inbertituko, betiere ELIFE batean edo batzuetan hasieran inbertitutako kopurua ez bada 10.000 euro baino gutxiagokoa.
47. Salbuespen inguruabarretan, eratze-dokumentuetan edo erregelamenduetan zehaztutakoak, ELIFE baten bizitza-aldia luzatu edo laburtu ahalko da malgutasun handiagoz jokatzeko, adibidez proiektu bat aurreikusi baino lehenago edo geroago bukatzen denean, epe luzerako inbertsioaren strategiarekin lerrokatzeko.
48. ELIFEko agintaritza eskudunak modu jarraituan egiaztatu behar du Erregelamendu honetan ezarritakoa betetzen den ala ez. Agintaritza eskudunek dagoeneko botere zabalak dituztenez 2011/61/EB Zuzentaraua dela bide, botere horiek handitu egin behar dira Erregelamendu honetan azaldutakoa aintzat hartuz.
49. Gainbegiratzeko Europako Agintaritzak (Balio eta Merkatuen Europako Agintaritza, BMEA), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1095/2010 Erregelamenduak (EB) eraturitakoak (1), Erregelamendu honi dagokionez, 2011/61/EB Zuzentarauak emandako eskumen guztiak aplikatzeko gaitasuna izan behar du, eta horretarako beharrezko baliabide guztiak bere esku jarri behar dira, bereziki giza baliabideak.
50. BMEAk funtsezko betebeharra bete behar du ELIFE-ei buruzko araudia aplikatzean, estatuetako agintaritza eskudunek Batasuneko arauak modu koherentean aplikatzen dituztela bermatuz. BMEAk oso ezagutza espezializatua dauka balio eta merkatuei dagokienez, eta, horrenbestez, erabaki politikorik eskatzen ez duten erregulazio-arau teknikoaren proiektuak prestatzea horren esku uztea egokia eta eraginkorra da, ondoren Batzordean aurkezte aldera. Aipatutako erregulazio-arau teknikoek inguruabar hauei egin behar diete erreferentzia: finantzaketa-tresna eratorriak inbertsioen berezko arriskuak estaltzeko baino erabiltzen ez direnean, ELIFE baten iraupena aski denean aktibo bakoitzaren bizitza-aldia hartzeko, ELIFEko aktiboak modu antolatuan besterentzako planaren ezaugarriak, inbertitzaileen kostuak kalkulatzeko metodoak eta definizioak, argitaratu beharreko kostuen aurkezpen-formak eta ELIFE-ek partaidetzak eta akzioak merkaturatu nahi dituzten estatu-kide bakoitzean ezarri beharko dituzten zerbitzuen ezaugarriak.

(1) *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1095/2010 Erregelamendua (EB), 2010eko azaroaren 24koa, Gainbegiratzeko Europako Agintaritza (Balio eta Merkatuen Europako Agintaritza) sortu zuena, 716/2009/EE Erabakia aldatu zuena eta Batzordearen 2009/77/EE Erabakia baliogabetu zuena (DO L 331, 2010-12-15ekoa, 84. or.).*



51. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentaraua ⁽¹⁾ eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 45/2001 Erregelamendua (EE) ⁽²⁾ erabat aplikatu behar dira datu pertsonalen truke, transmisio eta tratamenduari dagokienez, Erregelamendu honen ondorioetarako.
52. Erregelamendu honen helburua da ELIFEko funtzionamendu-baldintza eta inbertsioen zuhurtzia-betekizun aplikagarrien uniformetasuna bermatzea Batasun osoan, aldi berean aintzat hartuz, alde batetik, ELIFE-en fidagarritasunaren eta segurtasunaren arteko oreka aurkitzeko beharra, eta, beste aldetik, epe luzerako finantzaketa-merkatuaren funtzionamendu eraginkorra eta interesatutako aldeentzako kostua; hala, estatu-kideek ezin dute helburua aski lortu, helburuaren dimentsioak eta ondorioak direla medio, helburuok hobeto bete daitezke Batasun mailan. Hortaz, Batasunak neurriak har ditzake Europar Batasunaren Tratatuaren 5. artikuluan ezarritako subsidiariorotasun-printzipioarekin bat etorriz. Artikulu berean finkatutako proportzionalitate-printzipioarekin bat etorriz, Erregelamendu honek ez du beharrezkoa gainditzen aipatutako helburuak lortzeko.
53. Erregelamendu honek funtsezko eskubideak errespetatzen ditu eta aitortutako printzipioak aintzat hartzen ditu, bereziki Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotakoak, eta, zehazki, kontsumitzaileen babesari, enpresaren askatasuna, epaile inpartziala izateko eta benetako babes judizialerako eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubideak, baita interes ekonomiko orokorreko zerbitzuetara sarbidea izateko eskubidea ere. Erregelamendu hau eskubide eta printzipio horiekin bat etorriz aplikatu behar da.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DA:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta helburua.

1. Erregelamendu honek arau uniformeak ezarri ditu EBko inbertsio-funts alternatiboan («EBko IFA») funtzionamendu-baldintza, inbertsio-politika eta baimenari dagokienez, edo EBko IFAko ataletan, Europar Batasunean epe luzerako inbertsio funts europar gisa merkaturatzen direnak («ELIFE»).
2. Erregelamendu honen helburua kapitala ekonomia errealean epe luzerako inbertsio europarretarantz mugiarazi eta bideratzea da, hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailea izateko Batasunaren helburuekin bat etorriz.
3. Estatu-kideek ezingo dute beste betekizunik gehitu Erregelamendu honek araututako esparruan.

2. artikulua. Definizioak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, kontzeptu hauek honela ulertuko dira:

1. «ondarea»: ordaindu gabeko konprometitutako ondarea eta ondare-ekarpenak guztira, kalkulatzeko kopuru bihurtutako oinarritzat hartuz, inbertitzaileek zuzenean edo zeharka ordaindu beharreko gastu, karga eta komisio guztiak kendu ondoren.

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentaraua, 1995eko urriaren 24koa, pertsona fisikoaren babesari buruzkoa datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez (DO L 281, 1995-11-23koa, 31. or.).

(2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 45/2001 Erregelamendua (EE), 2010ko abenduaren 18koa, pertsona fisikoaren babesari buruzkoa erakundeek eta erkidegoko organismoek datu pertsonalak erabiltzeari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez (DO L 8, 2001-01-12koa, 1. or.).



2. «inbertitzaile profesionala»: bezero profesional gisa hartzen den inbertitzailea, edo, aldez aurretik eskatuta, bezero profesional gisa har daitekeena 2014/65/EB Zuzentarauaren II. eranskinarekin bat etorritik;
3. «txikizkako inbertitzailea»: inbertitzaile profesionala ez den inbertitzailea;
4. «kapitala»: zorroko enpresa onargarri baten jabetzaren interesak, akzio gisa edo zorroko enpresa onargarriaren ondarean partaidetza izateko inbertitzaileentzat jaulkitako beste modu batzuetan irudikatutakoa.
5. «kuasikapitala»: edozein finantza-tresna, horren errentagarritasunak lotura baldin badauka zorroko enpresa onargarriaren emaitzekin eta kiebra kasuan horiek itzultzea erabat bermatuta ez badago;
6. «aktibo erreala»: eratze eta propietateak tarteko balioa duen aktiboa, errendimenduak sor ditzakeena, azpiegiturak barne, eta mozkin ekonomiko edo sozialak ahalbidetzen dituzten beste aktibo batzuk, esaterako hezkuntza, aholkularitza, ikerkuntza eta garapena, eta merkataritza-higiezinak edo etxebizitzak barne soilik epe luzerako inbertsio-proiektu baten atal integral edo elementu lagungarri baldin badira, betiere hazkunde adimendun, jasangarri eta integraztailea izateko Batasunaren helburua lortzeko lagungarria bada.
7. «finantza-enpresa»: erakunde hauetako edozein:
 - a) kreditu-erakunde bat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 Erregelamenduaren (EB) 4. artikuluko 1. apartatuko 1. puntuan definitu bezala (1);
 - b) inbertsio-zerbitzuen enpresa bat, 2014/65/EB Zuzentarauko 4. artikuluko 1. apartatuko 1. puntuan definitu bezala;
 - c) aseguru-enpresa bat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/138/EE Zuzentarauaren 13. artikuluko 1. puntuan definitu bezala (2);
 - d) Zorroko finantza-sozietate bat, 575/2013 Erregelamenduaren (EB) 4. artikuluko 1. apartatuko 20. puntuan definitu bezala;
 - e) Zorroko sozietate misto bat, 575/2013 Erregelamenduaren (EB) 4. artikuluko 1. apartatuko 22. puntuan definitu bezala;
 - f) kudeaketa-sozietate bat, 2009/65/EE Zuzentarauko 2. artikuluko 1. apartatuko b) letran definitu bezala;
 - g) IFAK bat, 2011/61/EB Zuzentarauko 4. artikuluko 1. apartatuko b) letran definitu bezala;
8. «EBko IFA»: EBko IFA bat, 2011/61/EB Zuzentarauko 4. artikuluko 1. apartatuko k) letran definitu bezala;
9. «EBko IFAK»: EBko IFAK bat, 2011/61/EB Zuzentarauko 4. artikuluko 1. apartatuko l) letran definitu bezala;
10. «ELIFEko agintaritza eskuduna»: EBko IFAko jatorrizko estatu-kideko agintaritza eskuduna, 2011/61/EB Zuzentarauko 4. artikuluko 1. apartatuko h) letran adierazi bezala;

(1) *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko ekainaren 26koa, inbertsio-enpresen eta kreditu-erakundeen zuhurtzia-betekizunei buruzkoa, eta 648/2012 Erregelamendua (EB) aldatu duena (DO L 176, 2013-06-27koa, 1 or.).*

(2) *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/138/EE Zuzentaraua, 2009ko azaroaren 25koa, aseguru- eta berraseguru-jardueraren sarbideari eta jarduera hori egiteari buruzkoa (Kaudimena II) (DO L 335, 2009-12-17koa, 1 or.).*



11. «ELIFEko jatorrizko estatu-kidea»: ELIFEk baimena jaso duen estatu-kidea.
12. «ELIFEko kudeatzailea»: EBko IFAK baimendua, ELIFE bat kudeatzeko onarpena jaso duena edo barne mailan kudeatutako ELIFEa, ELIFEaren forma juridikoak barne kudeaketa ahalbidetzen duenean eta ez zaionean kanpoko IFAK bati esleitu;
13. «ELIFEko kudeatzailearen agintaritza eskuduna»: IFAKeko jatorrizko estatu-kideko agintaritza eskudunak, 2011/61/EB Zuzentarauko 4. artikuluko 1. apartatuko q) letran azaldu bezala;
14. «balore-maileguak» eta «baloreak maileguan hartzea»: transakzio bat da; honen bitartez, kontrako alderdi batek baloreak lagatzen ditu mailegu-hartzaileak pareko baloreak itzultzeko baldintzapean, etorkizunean edo alde lagatzaileak hala eskatzen duenean; transakzio hau balore-mailegu gisa hartuko da baloreak lagatzen dituen kontrako alderdiari dagokionez, eta jasotzen dituen alderdiaren kasuan baloreak maileguan hartzea bezala hartuko da.
15. «berrerosketa-ituna duen eragiketa»: Berrerosketa eragiketa bat da, 575/2013 Erregelamenduaren (EB) 4. artikuluko 1. apartatuko 83. puntuko definizioaren arabera;
16. «finantza-tresna»: 2014/65/EB Zuzentarauko I. eranskineko C sekzioan zehaztutako finantza-tresnak;
17. «laburrean saltzea»: jarduera bat da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 236/2012 Erregelamenduko (EB) 2. artikuluko 1. apartatuko b) letran definitu bezala ⁽¹⁾;
18. «merkatu arautua»: merkatu arautua, 2014/65/EB Zuzentarauko 4. artikuluko 1. apartatuko 21. puntuan definitu bezala;
19. «negoziazio-sistema multilateralra»: sistema bat da, 2014/65/EB Zuzentarauko 4. artikuluko 1. apartatuko 22. puntuan definitu bezala;

3. artikulua. Baimena eta erregistro publiko nagusia.

1. Erregelamendu honekin bat etorri baimendu denean baino ezingo da merkaturatu ELIFE bat Batasunean.

ELIFE gisa lan egiteko baimenak estatu-kide guztietan izango du balioa.

2. Soilik EBko IFAk izango dute ELIFE gisa jarduteko baimena eskatu eta lortzeko aukera.
3. ELIFEko agintaritza eskudunek Erregelamendu honekin bat etorri emandako edo ukatutako baimenen berri emango diete BMEAi, hiru hilabeterik behin.

BMEAk erregistro publiko nagusia izango du, eta bertan jasoko dira Erregelamendu honekin bat etorri baimendutako ELIFE bakoitza, kasuan kasuko kudeatzailea eta agintaritza eskuduna. Erregistroa euskarri elektronikoan eskuragarri izango da.

4. artikulua. Transformazio-debekua eta izendapena.

1. «ELIFE» edo «epe luzerako inbertsio funts europar» izena, inbertsio kolektiboko erakunde bati edo jaulkitako partaidetza eta akzioei dagokienez, soilik erabili ahalko da inbertsio kolektiboko erakundea Erregelamendu honekin bat etorri baimendu denean.
2. Debekatu egingo da ELIFEak Erregelamendu honetan jasota ez dauden inbertsio kolektiboko erakunde bihurtzea.

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 236/2012 Erregelamendua (EB), laburrean saltzeari eta ez daintzeagatik estaldura-trukeen zenbait alderdiri buruzkoa (DO L 86, 2012-03-24koa, 1. or.).



5. artikulua. ELIFE gisa jarduteko baimen-eskaera.

1. ELIFE gisa baimentzeko eskaera oro ELIFEko agintaritza eskudunaren aurrean aurkeztu beharko da. ELIFE gisa jarduteko baimen-eskaerak honako hau barne hartuko du:
 - a) funtsaren erregelamendua edo eratze-dokumentuak;
 - b) proposatutako ELIFEko kudeatzailearen nortasuna, funtsak kudeatzen duen aurreko eta oraingo esperientzia eta historiala;
 - c) gordailuzainaren nortasuna;
 - d) inbertitzaileei emango zaien informazioaren deskribapena, txikizkako inbertitzaileek aurkeztutako erreklamazioak lantzeko akordioen deskribapena barne.

Bigarren paragrafoa dela medio, emandako informazioa eta dokumentazioari buruzko informazioa edo azalpenak eskatu ahalko ditu ELIFEko agintaritza eskudunak.

2. 2011/61/EB Zuzentaraua dela bide baimendutako EBko IFAKek baino ezingo dute ELIFEko agintaritza eskudunen onarpena eskatu ELIFE bat kudeatzeko, 1. apartatuarekin bat etorritz baimen-eskaera aurkeztu bada. ELIFEko agintaritza eskuduna EBko IFAKeko agintaritza eskudun berbera bada, onarpen-eskaerak erreferentzia egin behar dio 2011/61/EB Zuzentaruari dagokion baimenerako aurkeztutako dokumentazioari.

ELIFE bat kudeatzeko onarpen-eskaerak honako hau barne hartuko du:

- a) Gordailuzainaren akordio idatzia;
- b) ordezkartza-modalitateei buruzko informazioa, ELIFEren kasuko arriskuaren eta zorroaren kudeaketari eta administrazioari dagokionez;
- c) EBko IFAKek baimenez kudea ditzakeen IFAen inbertsio-estrategia, arrisku-profila eta beste ezaugarri batzuei buruzko informazioa.

ELIFEko agintaritza eskudunak bigarren paragrafoan aipatutako dokumentazioari buruzko informazioa edo azalpenak eskatu ahal izango dizkio EBko IFAKeko agintaritza eskudunari, edo IFA kudeatzeko EBko IFAKek izango duen baimena egiaztatzen duen ziurtagiria, ELIFEak barne hartuko dituena. EBko IFAKeko agintaritza eskudunak hamar egun balioduneko epean erantzun beharko du, ELIFEko agintaritza eskudunak aurkeztutako eskabidea jasotzen duen datatik zenbatuta.

3. Eskaera osatua aurkeztu den unetik bi hilabeteko epean jakinaraziko zaie eskatzaileei ELIFE gisa baimena eman zaien ala ez, ELIFEa kudeatzeko EBren IFAKen baimena barne.
4. Ondoren, 1. eta 2. apartatuetan aipatutako dokumentazioan edozein aldaketa eginez gero, ELIFEko agintaritza eskudunari berehala jakinarazi beharko zaio.
5. 1. eta 2. apartatuetan jarritakoa gorabehera, EBren IFA baten forma juridikoak barne kudeaketa ahalbidetzen badu eta zuzendaritza-erakundeak kanpo IFAKik ez izendatzea erabaki badu, aldi berean ELIFE gisa baimentzeko eskaera egingo du Erregelamendu honekin bat etorritz eta IFAK modura 2011/61/EB Zuzentaruarekin bat etorritz.

2011/61/EB Zuzentaruako 7. artikulua xedatutakoa gorabehera, barne kudeaketa izango duen ELIFE gisa baimentzeko eskaerak honako hau hartuko du barne:

- a) funtsaren erregelamendua edo eratze-dokumentuak;
- b) inbertitzaileei emango zaien informazioaren deskribapena, txikizkako inbertitzaileek aurkeztutako erreklamazioak izapidetzeko arauen deskribapena barne.



3. apartatuan jarritakoa gorabehera, barne kudeaketa izango duen EBko IFari hiru hilabeteko epean jakinaraziko zaio ELIFE gisa baimena eman zaion ala ez, eskaera osatua aurkezten den unetik zenbatzen hasita.

6. artikulua. ELIFE gisa baimena emateko baldintzak.

1. EBko IFAek ELIFE gisa baimena lortu ahal izateko nahitaezkoa izango da haien agintaritza eskudunek honako hauek betetzea:
 - a) EBko IFAk Erregelamendu honetako betekizun guztiak bete ditzakeela sinesten du;
 - b) 2011/61/EB Zuzentarauarekin, funtsaren erregelamenduarekin edo eratze-dokumentuekin bat etorritik baimendutako EBko IFAk batek aurkeztutako ELIFEren kudeaketa-eskaera onartu du, baita gordailuzainaren aukeraketa ere.
2. EBko IFA batek Erregelamendu honen 5. artikuluko 5. apartatuarekin bat etorritik aurkezten badu eskaera, agintaritza eskudunak EBko IFA baimenduko du soilik sinesten badu EBko IFAk Erregelamendu honetako zein EBko IFAk bat baimentzeari buruzko 2011/61/EB Zuzentaruako betekizun guztiak bete ditzakeela.
3. ELIFEko agintaritza eskudunak uko egin ahal izango dio EBko IFAk batek aurkeztutako ELIFE bat kudeatzeko eskaerari EBko IFAk honako hauek betetzen dituenean:
 - a) Erregelamendu honetan ezarritakoa betetzen ez badu;
 - b) 2011/61/EB Zuzentaruaren ezarritakoa betetzen ez badu;
 - c) Agintaritza eskudunak ez badu baimendu Erregelamendu honetan aurreikusitako inbertsio-estrategien parekoak jarraituko dituzten IFAk kudeatzeko, edo
 - d) 5. artikuluko 2. apartatuak aipatutako dokumentazioa aurkeztu ez badu, ezta bertan eskatutako informazio edo azalpenik ere.

Eskaera bat ezestea onartu aurretik, ELIFEko agintaritza eskudunek EBko IFAkoko agintaritza eskudunari egingo dio kontsulta.
4. ELIFEko agintaritza eskudunak ez du ELIFE gisa baimenduko lege-eragozpenen bat baldin badago baimen-eskaera aurkeztu duen EBko IFAk akzioak edo partaidetzak jatorrizko estatu-kidean merkaturatzeko.
5. ELIFEko agintaritza eskudunak ELIFE gisa baimena ezesteko arrazoiak jakinaraziko dizkio EBko IFari.
6. Kapitulu hau dela bide ezetsi den eskaerarik ezingo da aurkeztu beste estatu-kide batzuetako agintaritza eskudunen aurrean.
7. ELIFE gisa baimentzeko ez da beharrezkoa izango ELIFEa kudeatzen duen EBko IFAk ELIFEaren jatorrizko estatu-kidean baimenduta egotea, edo EBko IFAk jarduerak jatorrizko estatu-kide horretan egin edo ordeztea.

7. artikulua. Arau aplikagarriak eta erantzukizuna.

1. ELIFE-ek une oro bete beharko dituzte Erregelamendu honetako xedapenak.
2. ELIFE-ek eta ELIFEko kudeatzaileak une oro bete beharko dute 2011/61/EB Zuzentaruaren ezarritakoa.



3. Erregelamendu hau betetzea bermatzeko ardura ELIFEko kudeatzaileak izango du, eta Erregelamendu honetako edozein arau-hausteren arduraduna ere izango da 2011/61/EB Zuzentarauarekin bat etorriz. Bideanabar, Erregelamendu hau ez betetzearen ondoriozko kalte eta galeren aurrean ere ELIFEko kudeatzaileak erantzungo du.

II. KAPITULUA

ELIFE-EN INBERTSIO-POLITIKARI BURUZKO BETEBEHARRAK

1. SEKZIOA

ARAU OROKORRAK ETA AKTIBO BALIAGARRIAK

8. artikulua. Inbertsioko konpartimentuak.

ELIFE batek zenbait inbertsio-konpartimentu baditu, horietako bakoitza ELIFE independente gisa hartuko da kapitulu honen ondorioetarako.

9. artikulua. Inbertsio baliagarriak.

1. 1. artikuluko 2. apartatuan aipatutako helburuekin bat etorriz, ELIFE-ek aktiboen kategoria hauetan baino ez dute inbertituko, eta soilik Erregelamendu honetan zehaztutako baldintzetan:
 - a) inbertsiorako baliagarriak diren aktiboak;
 - b) 2009/65/EE Zuzentarauko 50. artikuluko 1. apartatuak aipatutako aktiboak.
2. ELIFE-ek ez dute jarduera hauetako bat ere ez abiaraziko:
 - a) aktiboen salmenta laburrean;
 - b) lehengaien eraginpean egotea onartzea, zuzenean edo zeharka, ezta eratorritako finantza-tresnen bitartez, ordezkatzan dituzten ziurtagirien bitartez edo horietan oinarritutako indizeen bitartez ere, ezta horien eraginpean egotea ekar dezakeen beste edozein baliabide edo tresnaren bitartez ere.
 - c) baloreen mailegu-transakzioak negoziatzea, baloreak maileguan hartzekoak eta berrerosteko edo beste edozein akordio, pareko ondorio ekonomikoa badauka eta antzeko arriskuak eragiten baditu, betiere ELIFE-en aktiboen %10i eragiten badie.
 - d) eratorritako finantza-tresnak erabiltzea, salbu eta tresna horiek erabiltzearen helburu bakarra ELIFEren beste inbertsio batzuen berezko arriskuak estaltzea bada.
3. Artikulu hau koherentziaz aplikatzen dela bermatzeko BMEAk erregulazio-arau teknikoaren proiektuak prestatuko ditu, kontsulta publikoa egin ondoren; arau horietan zehaztu egingo da zein baldintzatan ulertzen den eratorritako finantza-tresnak erabiltzearen helburu bakarra 2. apartatuko d) letrak aipatutako inbertsioen berezko arriskuak estaltzea dela.

BMEAk Batzorde aurrean aurkeztuko ditu erregulazio-arau teknikoaren proiektu horiek, beranduenez 2015eko irailaren 9an.

Lehenengo paragrafoak aipatutako erregulazio-arau teknikoak emateko ahalmena Batzordeari ematen zaio, 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) 10-14 artikuluekin bat etorriz.

10. artikulua. Inbertsiorako aktibo baliagarriak.

9. artikuluko 1. apartatuko a) letrak aipatutako aktiboak kategoria hauetakoren batean sartzen badira baino ez dira ELIFE baten inbertsiorako baliagarritzat joko:



- a) kapital edo kuasikapitaleko tresnak, baldin eta:
 - i) zorroko enpresa onargarri batek eman baditu eta ELIFEk enpresa horri edo hirugarrenei bigarren mailako merkatuan erosi badizkio.
 - ii) zorroko enpresa onargarri batek eman baditu aldez aurretik ELIFEk enpresa horri edo hirugarren bati bigarren mailako merkatuan erositako kapital edo kuasikapitaleko tresna baten truke.
 - iii) filiala den zorroko enpresa onargarri batean partaidetza handiena daukan enpresa batek eman baditu, ELIFEk erositako kapital edo kuasikapitaleko tresna baten truke, i) edo ii) atalekin bat etorri, zorroko enpresa onargarriari edo hirugarrenei bigarren mailako merkatuan erositakoa;
- b) zorroko enpresa onargarri batek emandako zor-tresnak;
- c) ELIFEk zorroko enpresa onargarri bati emandako maileguak, ELIFEn bizitza-aldia gaindituko ez duen iraungitzearekin.
- d) ELIFE, AKFE eta GEFE batean edo batzuetan partaidetzak edo akzioak, betiere funts horiek ez badute, aldi berean, ondarearen %10 baino gehiago ELIFEn inbertitu;
- e) aktibo errealak izatea, zuzenean edo zeharka, zorroko enpresa onargarrien bitartez, 10.000.000 euroko edo gehiagoko balioarekin edo kopuru horren balio baliokidean data horretan eta gastua egiteko baliatutako txanponean.

11. artikulua. Zorroko enpresa onargarria.

- 1. 10. artikulua aipatutako zorroko enpresa onargarriak inbertsio kolektiboko erakundeak ez diren zorroko enpresak izango dira, betiere betekizun hauek betetzen badituzte:
 - a) finantza-enpresak ez izatea;
 - b) honako hauek egiten dituzten enpresak izatea:
 - i) merkatu arautu batean kotizatzeko onartuta ez egotea, ezta negoziazio-sistema multilateral batean ere ez, edo
 - ii) merkatu arautu batean kotizatzeko onartuta egotea, edo negoziazio-sistema multilateral batean, eta, aldi berean, burtsa-kapitalizazioa ez izatea 500.000.000 euro baino gehiagokoa.
 - c) estatu-kide batean kokatuta egotea, edo hirugarren herrialde batean, betiere herrialde horrek:
 - i) Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak definitutako arrisku handiko jurisdikzio eta jurisdikzio ez kolaboratzaileen parte ez izatea,
 - ii) ELIFEko kudeatzailearen jatorrizko estatu-kidearekin eta ELIFEko partaidetzak edo akzioak merkataturako diren gainerako estatu-kide guztiekin akordioa sinatu izana, hirugarren herrialdea ELGAko Ondareari eta Errentari buruzko Zerga Hitzarmenaren Ereduren 26. artikuluan ezarritako aginduei erabat egokitzea bermatzeko eta zerga-arloko informazioa eraginkortasunez trukatzeko ziurtatzeko, zerga-arloko akordio multilateralak barne, hala badagokio.
- 2. Artikulu honetako 1. apartatuko a) letran ezarritakoa gorabehera, zorroko enpresa onargarri bat eskusiboki zorroko enpresa onargarriak finantzatzeko dituen finantza-enpresa bat izan ahalko da, artikulu honetan 1. apartatuan edo aktibo errealak 10. artikuluko e) letran ezarritakoari jarraiki.



12. artikulua. Interes gatatzak.

ELIFE-ek ez dute inbertsiorako baliagarria den ezein aktibotan inbertituko, aktiboaren kudeatzaileak interes zuzena edo zeharkako interesa badauka edo eskuratzen badu horretan, kudeatzen dituen AKFE, GEFE edo ELIFE-etako partaidetza edo akzioak izatearen ondoriozkoak ez beste batzuk badira.

2. SEKZIOA

INBERTSIO-POLITIKARI BURUZKO XEDAPENAK

13. artikulua. Zorroaren osaera eta dibertsifikazioa.

1. ELIFE-ek gutxienez ondarearen %70 inbertitzeko baliagarriak diren aktiboetan inbertituko dute.
2. ELIFE-ek ezingo dute hau baino gehiago inbertitu:
 - a) a) ondarearen %10 zorroko enpresa onargarri bakarrak jaulkitako tresnetan, edo zorroko enpresa onargarri bakar bati emandako maileguetan.
 - b) b) ondarearen %10 aktibo erreal bakarrean, zuzenean edo zeharka;
 - c) c) ondarearen %10 ELIFE, AKFE edo GEFE berberaren partaidetza edo akzioetan;
 - d) d) ondarearen %5 aktiboetan, 9. artikuluko 1. apartatuko b) letrak aipatutakoak, aktibo horiek erakunde berberak eman dituenean.
3. ELIFE baten zorroa osatzen duten AKFE, GEFE eta ELIFEko partaidetza edo akzioen balio erantsiak ezingo du gainditu ELIFEren ondare balioaren %20.
4. ELIFEren arrisku erantsiaren eraginpean egoteak ezingo du ELIFEren %5 gainditu, OTCrekin eragiketak egitearen ondoriozko kontrako alderdiari edo berrerosketa-itunei edo alderantzizko berrerosketa-itunei dagokienez.
5. 2. apartatuko a) eta b) letretan ezarritakoa gorabehera, ELIFE-ek letra horietan aipatutako %10eko muga %20ra arte areagotu ahalko dute, betiere ELIFE-ek zorroko enpresa onargarrietan eta ondarearen %10 baino gehiagoko inbertsioak jaso dituzten aktibo errealetan dauzkaten aktiboaren balio erantsiak ez badu gainditzen ELIFEko ondarearen balioaren %40.
6. 2. apartatuko d) letran ezarritakoa gorabehera, ELIFE-ek letra horretan aipatutako %5eko muga %25era arte areagotu ahalko dute kreditu-erakunde batek jaulkitako betebeharrak egoitza soziala estatu-kide batean daukatenean eta betebeharren titularrak babesteko pentsatutako ikuskapen publiko berezi baten mende badago, legedia dela bide. Hain zuzen ere, betebeharrak jaulkitzearen ondoriozko kopuruak inbertitu egin beharko dira, zuzenbidearekin bat etorritik, betebeharrak baliagarriak diren aldi osoan zehar betebeharrak eragindako konpromisoak estali ahal dituzten aktiboetan, eta, jaulkitzailea kaudimengabezia-egoeran egonez gero, lehentasunez erabiliko dira printzipala itzultzeko eta sortutako interesak ordaintzeko.



7. Kontu bateratuen ondorioetarako talde berean jasotako sozietateak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauan ezarritakoaren arabera ⁽¹⁾, edo aitortutako kontabilitateko nazioarteko arauen arabera, zorroko enpresa onargarri bakartzat edo erakunde bakartzat joko dira 1-6 artikuluek aipatutako mugak kalkulatzeko aldera.

14. artikulua. Inbertsio-posizioa zuzentzea.

ELIFEk ez baditu betetzen 13. artikuluko 2-6 apartatuetan ezarritako dibertsifikazio-betekizunak, eta ez-betetzea ez badagokio ELIFEko kudeatzailearen kontrolari, azken horrek beharrezko neurriak hartu beharko ditu posizioa zuzentzeko, ELIFEko inbertitzaileen interesak behar bezala kontuan hartuz, epe egoki batean.

15. artikulua. Kontzentrazioa.

1. ELIFE batek ezingo du ELIFE, AKFE edo GEFE berberaren partaidetza edo akzioen %25 baino gehiago erosi.
2. 2009/65/EE Zuzentarauen 56. artikuluko 2. apartatuan ezarritako kontzentrazio-mugak aplikagarriak izango dira Erregelamendu honen 9. artikuluko 1. apartatuko b) letrak aipatutako aktiboen inbertsioen kasuan.

16. artikulua. Eskudirua maileguan hartzea.

1. ELIFE-ek eskudiru-maileguak eskuratu ahalko dituzte, betiere jasotako maileguak baldintza hauek guztiak betetzen baditu:
 - a) ELIFEren ondarearen %30 baino gehiago ez hartzea;
 - b) inbertsiorako baliagarriak diren aktiboetan inbertitzera bideratuta egotea, 10. artikuluko c) letrak aipatutako maileguak salbuetsiz, betiere eskudirutan eta ELIFEren bestelako baliabide likido baliokideetan jabetzak aski ez badira aipatutako inbertsioa egiteko;
 - c) eskudiru-maileguarekin erosiko diren aktiboen txanpon berean hartzea;
 - d) ELIFEren bizitza-aldia gaintzen ez duen iraungitzea izatea;
 - e) zergapetutako aktiboek ez badute ELIFEren ondare balioaren %30 baino gehiago hartzen.
2. ELIFEko kudeatzaileak ELIFEren liburuxkan adieraziko du eskudiru-maileguak jasotzeko asmoa duen ala ez, inbertsio-estrategiaren parte gisa.

17. artikulua. Zorroaren dibertsifikazio- eta osaera-arauen aplikazioa.

1. 13. artikuluko 1. apartatuan ezarritako inbertsio-mugak honako hauetan aplikatuko dira:
 - a) beranduenez ELIFEren eratze-dokumentuetan edo erregelamenduan ezarritako datan aplikatuko dira;
 - b) aplikatzeari utziko zaio ELIFE aktiboak saltzen hasten denean, funtsa iraungi ondoren inbertitzaileen akzio edo partaidetzak itzultze aldera;
 - c) behin-behinean etengo dira ELIFEk ondarea areagotzen duenean edo existitzen den ondarea murrizten duenean; gehienez 12 hilabeteko etenaldiaren mende egongo da.

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentzua, 2013ko ekainaren 26koa, urteko finantza-egoerei, finantza-egoera bateratuei eta enpresa jakin batzuen antzeko beste txosten batzuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/43/EE Zuzentzua aldatu zuena eta Kontseiluaren 83/349/EE eta 78/660/EE zuzentzua baliogabetu zituena (DO L 182, 2013-06-29koa, 19. or.).



Lehenengo paragrafoko a) letran aipatutako datak aintzat hartuko ditu ELIFEk inbertituko duen aktiboen ezaugarri berezi eta bereizgarriak, eta data hori ez da izango ELIFE baimendu eta bost urte baino geroagokoa, edo ELIFEko bizitza-aldiaren erdia, lehenago gertatzen dena, 18. artikuluko 3. apartatuarekin bat etorri bezala. Salbuespen-inguruabarretan, ELIFEko agintaritza eskudunak epe hori gehienez urtebetez luzatzea baimendu ahalko du, aldez aurretik behar bezala justifikatutako inbertsio-plan bat aurkeztuz.

2. ELIFEren inbertsioa jaso duen epe luzerako aktibo bat 11. artikuluko 1. apartatuko b) letran ezarritakoa betetzen ez duen zoroko enpresa onargarri batek jaulki badu, aktiboa zenbatzen jarraitu ahalko da 13. artikuluko 1. apartatuak aipatutako inbertsio-mugaren kalkulua egite aldera, gehienez hiru urtez zoroko enpresa onargarri batek 11. artikuluko 1. apartatuko b) letran ezarritakoa betetzeari uzten dionetik.

III. KAPITULUA

ELIFE BATEN AKZIOAK EDO PARTAIDETZAK ITZULTZEA, NEGOZIATZEA ETA JAULKITZEA ETA ERRENDIMENDUEN ETA ONDAREAREN BANAKETA

18. artikulua. ELIFE-en iraungitze- eta itzulketa-politika.

1. ELIFEko inbertitzaileek ezingo dute partaidetzak edo akzioak itzultzeko eskatu ELIFE iraungi aurretik. ELIFE iraungitzeko dataren hurrengo egunean hasi ahalko da inbertitzaileei itzultzeko prozesua.

ELIFEko eratze-dokumentuek edo erregelamenduak argi eta garbi ELIFE iraungitzeko data zehatz bat adieraziko dute, eta ELIFEko bizitza-aldiaren aldi bateko luzapen-eskubidea ezarri ahalko dute, baita eskubide hori baliatzeko baldintzak ere.

ELIFEko eratze-dokumentuek edo erregelamenduak eta inbertitzaileei jakinarazitako informazioak akzioak edo partaidetzak itzultzeko prozedurak azalduko dituzte, baita aktiboak besterentzekoak ere, eta inbertitzaileei zuzendutako itzultze-prozedurak ELIFE iraungi eta hurrengo egunean hasiko direla argi eta garbi azalduko dute.

2. 1. apartatuan azalduetakoa gorabehera, ELIFEko eratze-dokumentuek edo erregelamenduak ELIFE iraungi aurretik itzultzeko aukera aurreikusi ahalko dute, betiere baldintza hauek betetzen badira:
 - a) 17. artikuluko 1. apartatuko a) letran adierazitako data baino lehen ez da itzulketarik emango;
 - b) baimentzen den unean eta ELIFEren bizitza-aldi osoan, kudeatzaileak agintaritza eskudunen aurrean frogatu ahalko du likidezia kudeatzeko sistema egokia eta prozedura eraginkorrak ezarri direla ELIFEren likidezia-arriskua kontrolatzeko; ELIFEren epe luzerako inbertsio-estrategiarekin eta proposatutako itzulketen politikarekin bateragarriak izan beharko dira;
 - c) ELIFEko kudeatzaileak itzulketa-politika definitua finkatuko du, eta inbertitzaileek itzulketak eskatu ahal izateko epeak argi adieraziko ditu.
 - d) ELIFEren itzulketa-politikak bermatu egingo du denbora-tarte zehatz batean itzulketen kopuru globala 9. artikuluko 1. apartatuko b) letran aipatutako ELIFE-en aktiboen ehunekora mugatuta egotea; ehuneko horrek bat etorri beharko du ELIFEko kudeatzaileak jakinarazitako inbertsio eta likidezia kudeatzeko estrategiarekin;
 - e) ELIFEko itzulketa-politikak bermatu egingo du inbertitzaileek tratu parekidea jasotzen dutela eta itzulketak modu proportzionalean ematen direla denbora-aldi jakin bateko itzulketa-eskabide kopuruak, guztira, gainditu egiten badu apartatu honetako d) letran adierazitako ehunekoa.



3. ELIFEn iraupena koherentea izango da epe luzerako izaerarekin, eta aski izango da hartzeko aktibo bakoitzaren bizitza-aldia, aktiboaren bizi-ziklo ekonomikoa eta likidatu beharreko profilararekin bat etorriz, eta funtsaren inbertsio-helburu aitortua.
4. Inbertitzaileek ELIFE likidatzeko eskaera aurkeztu ahalko dute itzulketa-eskabideak, ELIFEko itzulketa-politikarekin bat etorriz aurkeztutakoak, ez badira urtebeteko epean ebatzi egin diren datatik zenbatuta.
5. Inbertitzaileek itzulketa eskudirutan lortzeko aukera izango dute beti.
6. Itzulketa ELIFEko aktiboekin gauzatan itzultzea soilik baldintza hauek guztiak betetzen direnean egin ahalko da:
 - a) ELIFEko eratze-dokumentuek edo erregelamenduak aukera hori aurreikustea, betiere inbertitzaile guztiek tratu parekidea jasotzen badute;
 - b) inbertitzaileak idatziz eskatzea ELIFEko aktiboan zati bat itzul diezaioten;
 - c) aktibo horiek lagatzea mugatzen duen arau zehatzik ez egotea.
7. BMEAk erregulazio-arau teknikoak proiektuak prestatuko ditu, eta proiektu horietan zehaztuko da zein baldintzatan ulertuko den ELIFEn iraupena aski dela aktibo bakoitzaren bizitza-zikloa hartzeko, 3. apartatuak aipatutakoa.

BMEAk Batzorde aurrean aurkeztuko ditu erregulazio-arau teknikoak proiektu horiek, beranduenez 2015eko irailaren 9an.

Lehenengo paragrafoak aipatutako erregulazio-arau teknikoak hartzeko ahalmena Batzordeari ematen zaio, 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) 10-14 artikuluekin bat etorriz.

19. artikulua. Bigarren mailako merkatua.

1. ELIFE baten eratze-dokumentuek edo erregelamenduak ez dute eragotziko akzio edo partaidetzak merkatu arautu batean edo negozioazio-sistema multilateral batean negozioaziorako onar daitezen.
2. ELIFEko eratze-dokumentuek eta erregelamenduek ez diete inbertitzaileei eragotziko partaidetzak edo akzioak ELIFEko kudeatzaile ez beste hirugarren batzuei modu librean lagatzea.
3. ELIFEak, aldizkako txostenetan, partaidetza edo akzio kotizatuen merkatu-balioa argitaratuko du, baita partaidetza edo akzio bakoitzeko likidazio-balioa ere.
4. Aktibo baten balioan aldaketa esanguratsua gertatuz gero, ELIFEko kudeatzaileak horren berri emango die inbertitzaileei, aldizkako txostenetan.

20. artikulua. Akzio edo partaidetza berriak jaulkitzea.

1. ELIFE-ek akzio edo partaidetza berriak jaulki ahalko dituzte, eratze-dokumentuekin edo erregelamenduarekin bat etorriz.
2. ELIFE-ek ez dute partaidetza edo akzio berririk jaulkiko likidazio-balioa baino prezio baxuagoan alde aurretik ELIFEn dauden inbertitzaileei prezio horretan eskaini gabe.

21. artikulua. ELIFEko aktiboak besterentzea.

1. ELIFE bakoitzak plan xehatua izango du aktiboak modu ordenatuan besterentzeko, ELIFEak iraungi ondoren inbertitzaileen partaidetzak edo aktiboak itzultzeko, eta horren berri emango dio ELIFEn agintaritzari eskudunari gehienez ELIFE iraungi eta urtebetetera.



2. 1. apartatuak aipatutako planak honako hauek barne hartuko ditu:
 - a) Balizko erosleen merkatuaren ebaluazioa;
 - b) balizko salmenta-prezioen ebaluazioa eta konparazioa;
 - c) besterendu beharreko aktiboen balorazioa;
 - d) besterentze planerako egutegia.
3. BMEAk erregulazio-arau teknikoen proiektuak prestatuko ditu, eta bertan zehaztuko da a) letrak aipatutako ebaluazioa eta 2. apartatuko c) letrak aipatutako balorazioa egiteko irizpideak.

BMEAk Batzorde aurrean aurkeztuko ditu erregulazio-arau teknikoen proiektu horiek, beranduenez 2015eko irailaren 9an.

Lehenengo paragrafoak aipatutako erregulazio-arau teknikoak hartzeko ahalmena Batzordeari ematen zaio, 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) 10-14 artikuluekin bat etorriz.

22. artikulua. Ondare eta errendimenduen banaketa.

1. ELIFE-ek zorroko aktiboen sorrarazitako errendimenduak inbertitzaileen artean banatu ahalko dituzte, aldizka. Errendimendu horiek honako hauek barne hartuko dituzte:
 - a) aktiboen aldizka sortutako edozein errendimendu;
 - b) aktibo bat besterendu ondoren lortutako plusbalia.
2. ELIFEren etorkizuneko konpromisoetarako beharrezkoak diren errendimenduak ez dira banatuko.
3. ELIFE-ek ondarea proportzionalki murrizteko aukera izango dute, ELIFEa iraungi aurretik aktibo bat besterenduz gero, betiere ELIFEko kudeatzaileak behar bezala arrazoitu badu alde aurreko besterentze hori inbertitzaileen interesen onerako dela.
4. ELIFE-ek eratze-dokumentuetan edo erregelamenduan adieraziko dute bizitza-aldian zehar ELIFE-ek baliatuko duten banaketa-politika.

IV. KAPITULUA

GARDENTASUN-BETEKIZUNAK

23. artikulua. Gardentasuna.

1. ELIFE baten partaidetzak edo akzioak ezingo dira Batasunean merkaturatu, aurretik liburuxka bat argitaratu gabe.

ELIFE baten partaidetzak edo akzioak ezingo dira Batasuneko txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatu oinarritzko datuen inguruko dokumentu bat alde aurretik argitaratzen ez bada, 1286/2014 Erregelamenduari (EB) bat etorriz.

2. Liburuxkak beharrezko informazio guztia izan behar du inbertitzaileek proposatu zaien inbertsioari buruzko ebaluazio argudiatua egiteko aukera izan dezaten eta, bereziki, horrek dakartzan arriskuei dagokienez.
3. Liburuxkak, gutxienez, honako hau jasoko du:



- a) ELIFEko inbertsio-helburuek eta helburuok lortzeko estrategiak epe luzerako funts-izaera ematen diotela azaltzeko adierazpena;
 - b) inbertsio kolektiboko erakunde itxiek eman behar duten informazioa, 2003/71/EE Zuzentaraurekin eta 809/2004 Erregelamenduarekin (EE) bat etorritz;
 - c) inbertitzaileei eman beharreko informazioa, 2011/61/EB Zuzentarauko 23. artikuluekin bat etorritz, apartatu honetako b) letran aipatutakoan jasota ez badago;
 - d) ELIFEk baimen bidez zein aktibo-kategoriatan inbertitu dezakeen modu nabarmenean adieraztea;
 - e) ELIFEk baimen bidez zein jurisdikziotan inbertitu dezakeen modu nabarmenean adieraztea;
 - f) 2. apartatuaren ondorioetarako agintaritzea eskudunen arabera garrantzitsua den beste edozein informazio.
4. Liburuxkak eta merkaturatze-sustapeneko beste edozein dokumentuk ELIFE likidatu beharrari buruzko informazioa emango die inbertitzaileei, modu nabarmenean.

Bereziki, liburuxkak eta merkaturatze-sustapeneko gainerako dokumentuek honako hau egingo dute:

- a) inbertitzaileei argitasunez informatuko zaie ELIFEren inbertsioen epe luzeari dagokionez;
 - b) inbertitzaileei argitasunez informatuko zaie ELIFEren iraungipenari dagokionez, baita ELIFE-en bizitza-aldia luzatzeko aukerari dagokionez ere, aurreikusita badago, eta horretarako baldintzei dagokionez;
 - c) argi eta garbi adieraziko da txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatzeko ELIFEa izateari dagokionez;
 - d) inbertitzaileek egindako inbertsioa jasotzeko eskubidea daukatela argi eta garbi adieraziko da, 18. artikuluekin eta ELIFEko eratze-dokumentuekin edo erregelamenduarekin bat etorritz.
 - e) errendimenduak inbertitzaileen artean banatzeko egutegia eta maiztasuna argi eta garbi adieraziko dira, hala badagokio, ELIFEren bizitza-aldian zehar;
 - f) ELIFE batean soilik inbertsio globaleko zorroaren proportzio txiki bat inbertitzeko komenigarritasunaren inguruan argi eta garbi ohartaraziko dituzte inbertitzaileak.
 - g) ELIFE-en arriskuak estaltzeko politika argi eta garbi deskribatuko da, berriaz adieraziz eratorritako finantza-tresnak ELIFEren beste inbertsio batzuen berezko arriskuak estaltzeko baino ezingo direla erabili, eta, halaber, eratorritako finantza tresnak erabiltzeak ELIFEren arrisku-profilean izan dezakeen balizko eragina azalduz.
 - h) aktibo errealetan inbertitzeari lotutako arriskuen inguruko informazioa argitasunez emango zaie inbertitzaileei, azpiegiturak barne;
 - i) inbertitzaileei zuzendutako informazioa emango da, informazio argia, aldizka emango dena, gutxienez urtean behin, ELIFEren inbertsioei dagokien jurisdikzioen inguruan.
5. 2011/61/EB Zuzentarauko 22. artikuluan eskatutako informazioaz gain, ELIFEren urteroko txostenak datu hauek ere emango ditu:
- a) kutxa-fluxuen egoera;



- b) tresnetan izandako edozein partaidetzari buruzko informazioa, Batasuneko aurrekontu-funtsek esku hartzen badute;
 - c) zorroko enpresa onargarri bakoitzaren balioari buruzko informazioa, baita ELIFERen inbertsioak jaso dituzten beste aktibo batzuen balioari dagokionez ere, eratorritako finantza-tresna erabiliak barne;
 - d) ELIFERen aktiboei dagozkien jurisdikzioei buruzko informazioa.
6. Txikizkako inbertitzaileek eskatuta, ELIFeko kudeatzaileak informazio osagarria emango du ELIFE-en arrisku kudeaketan aplikagarriak diren muga kuantitatiboei, horretarako aukeratutako metodoei eta aktiboen kategorien errendimendu eta arrisku nagusien bilakaera berriari dagokienez.

24. artikulua. Liburuxkaren betekizun gehigarriak.

1. ELIFE-ek liburuxkak eta aldaketak, baita urteko txostenak ere, ELIFE-en agintaritza eskudunetara igorriko dituzte. Aldez aurretik eskatuz gero, ELIFE-ek dokumentazioa ELIFEaren kudeatzailearen agintaritza eskudunei bidaliko diete. ELIFE-ek agintaritza eskudun horiek adierazitako epean emango dute dokumentazioa.
2. ELIFE-en eratze-dokumentu edo erregelamenduak liburuxkan jasoko dira, eta eranskin gisa gehitu beharko dira.

Hala ere, baliteke lehenengo paragrafoan aurreikusitako dokumentuak ez jasotzea eranskin gisa liburuxkan inbertitzaileari jakinarazten zaionean, eskatuz gero, dokumentu horiek igorri egingo zaizkiola, edo akzioak edo partaidetzak merkaturatu dituen estatu-kide bakoitzean non kontsulta ditzakeen adierazten zaionean.

3. Liburuxkak argi adierazi beharko du inbertitzaileei urteko txostena nola helaraziko zaien. Urteko txostenaren ale bat paper-euskarrian txikizkako inbertitzaileei ematea aurreikusi beharko da, aldez aurretik eskatuz gero eta doan.
4. Inbertitzaileek liburuxka eta azken urteko txosten argitaratua jasoko dute, aldez aurretik eskatuz gero eta doan.

Liburuxka euskarri iraunkor batean emango da, edo webgune baten bitartez. Txikizkako inbertitzaileei ale bat emango zaie, paperean, aldez aurretik eskatuz gero eta doan.

5. Liburuxkako funtsezko elementuak eguneratu egin beharko dira.

25. artikulua. Kostuak adieraztea.

1. Liburuxkan modu argian azalduko zaie inbertitzaileei inbertitzaileak zuzenean edo zeharka jasan beharreko kostuen maila. Kostuak kategoriatan hauek multzokatuko dira:
 - a) ELIFEa ezartzeko kostuak;
 - b) aktiboak eskuratzeari lotutako kostuak;
 - c) kudeaketa-kostuak eta emaitzekin lotutako komisioak;
 - d) banaketa-kostuak;
 - e) beste kostu batzuk, administrazio-kostuak, araudi-kostuak, gordailuzain-kostuak, zaintza-kostuak, zerbitzu profesionaleri lotutakoak eta ikuskaritza-kostuak barne.
2. Liburuxkan ELIFERen ondare eta kostuen arteko ratio globala ere adieraziko da.



3. BMEAk erregulazio-arau teknikoek proiektuak prestatuko ditu, eta bertan zehaztuko dira 1. apartatuak aipatutako kostuak aurkezteko formato komunak, kalkulatzeko metodoak eta definizioak, eta 2. apartatuak aipatutako ratio globala.

Erregulazio-arau teknikoek proiektu horiek prestatzerakoan, BMEAk aintzat hartuko ditu 1286/2014 Erregelamenduko (EB) 8. artikuluko 5. apartatuko a) eta c) letrek aipatutako erregulazio-arau teknikoak.

BMEAk Batzorde aurrean aurkeztuko ditu erregulazio-arau teknikoek proiektu horiek, beranduenez 2015eko irailaren 9an.

Lehenengo paragrafoak aipatutako erregulazio-arau teknikoak hartzeko ahalmena Batzordeari ematen zaio, 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) 10-14 artikuluekin bat etorriz.

V. KAPITULUA

ELIFEKO AKZIOAK EDO PARTAIDETZAK MERKATURATZEA

26. artikulua. Inbertitzaileen esku dauden zerbitzuak.

1. ELIFE baten kudeatzaileak, ELIFE horren partaidetzak edo akzioak txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatu nahi badira, aipatutako partaidetzak edo akzioak merkaturatu nahi diren estatu-kide bakoitzean beharrezko zerbitzuak ezarriko ditu harpidetzak egiteko, akziodunei edo partaideei ordainketak egiteko, akzioak edo partaidetzak berrerosteko edo itzultzeko eta ELIFEak eta ELIFEko kudeatzaileak eman beharreko informazioa emateko.
2. BMEAk erregulazio-arau teknikoek proiektuak prestatuko ditu 1. apartatuan aipatutako zerbitzuen ezaugarriak eta mota, azpiegitura teknikoa eta funtzioen edukia zehazteko, ELIFEko txikizkako inbertitzaileei dagokienez.

BMEAk Batzorde aurrean aurkeztuko ditu erregulazioen arau teknikoek proiektu horiek, beranduenez 2015eko irailaren 9an.

Lehenengo paragrafoak aipatutako erregulazio-arau teknikoak hartzeko ahalmena Batzordeari ematen zaio, 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) 10-14 artikuluekin bat etorriz.

27. artikulua. Txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatutako ELIFE-en barne ebaluazio-prozesua.

1. ELIFE baten kudeatzaileak, partaidetzak edo akzioak txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatu nahi baditu, ELIFE hori ebaluatzeko barne prozesu zehatz bat ezarri eta aplikatuko du, merkaturatu edo txikizkako inbertitzaileen artean banatu aurretik.
2. 1. apartatuan aipatutako barne prozesuaren parte gisa, ELIFEko kudeatzaileak aztertu egingo du ELIFEa txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatzeko egokia ote den, gutxienez honako faktore hauek aintzat hartuz:
 - a) ELIFEaren bizitza-aldia, eta
 - b) ELIFEak aurreikusitako inbertsio-estrategia.
3. ELIFEko kudeatzaileak txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatutako ELIFEari buruzko informazio egoki guztia banatzaileen esku jarriko du, inbertsio-estrategiari eta bizitza-aldiari buruzko informazioa barne, baita ELIFEk inbertitu dezakeen jurisdikzio eta barne ebaluazio-prozesuari buruzko datuak ere.



28. artikulua. ELIFE txikizkako inbertitzaileen artean banatzeari buruzko betekizun zehatzak.

1. ELIFE bat zuzenean txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatu edo eskaintzen denean, ELIFEko kudeatzaileak honi buruzko informazioa lortuko du:
 - a) txikizkako inbertitzailearen ezagutza eta esperientzia ELIFERI dagokion inbertsio-esparruan;
 - b) txikizkako inbertitzailearen finantza-egoera, galerei aurre egiteko gaitasuna barne;
 - c) Txikizkako inbertitzailearen inbertsio-helburuak, inbertitzaile horren denbora-horizontea barne.

Lehenengo parafragoaren bitartez lortutako informazioan oinarrituz, kasuan kasuko txikizkako inbertitzailearentzat aproposa bada baino ez du ELIFEko kudeatzaileak ELIFEa gomendatuko.

2. Txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatu edo eskaintako ELIFE baten bizitza-aldiak hamar urteko epea gainditzen badu, ELIFEko kudeatzaileak edo banatzaileak idatziz eta argitasunez ohartaraziko du produktua desegokia izan daitekeela epe luzeko horrelako likidatu beharreko konpromiso bati aurre egin ezin duten txikizkako inbertitzaileentzat.

29. artikulua. Txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatutako ELIFE baten gordailuzainari buruzko berariazko xedapenak.

1. 2011/61/EB Zuzentarauko 21. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoa gorabehera, txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatutako ELIFE baten gordailuzaina 2009/65/EE Zuzentarauko 23. artikuluko 2. apartatuak aipatutako erakunde motakoa izango da.
2. 2011/61/EB Zuzentarauko 21. artikuluko 14. apartatuan eta 21. artikuluko 13. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritakoa gorabehera, txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatutako ELIFE baten gordailuzaina ezingo da erantzukizunetik salbuetsi hirugarren batek zaindutako finantza-tresnen galera aurrean.
3. 2011/61/EB Zuzentarauko 21. artikuluko 12. apartatuak aipatutako gordailuzainaren erantzukizuna ezingo da erabaki bidez mugatu edo baztertu ELIFEa txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatzen denean.
4. 3. apartatuan ezarritakoaren aurkako edozein erabaki baliogabea izango da.
5. ELIFE baten gordailuzainak zaindu beharreko aktiboak ezingo ditu gordailuzainak berak berrerabili, ezta zaintza-funtzioa eskuordetuta daukan hirugarren batek ere ez. Berrerabilerak zaindu beharrek aktiboen transakzio oro hartzen du barne, transferentzia, pignorazio, salmenta edo mailegua barne, beste transakzio mota batzuk baztertu gabe.

ELIFE baten gordailuzainak zaindutako aktiboak berrerabili egingo dira, betiere honako hauek betetzen direnean:

- a) aktiboak ELIFEk berrerabiltzen baditu;
- b) gordailuzainak ELIFERen kudeatzailearen jarraibideak aplikatzen baditu, funtsaren izenean;
- c) ELIFERen onerako eta akziodun eta partaideen interesen alde berrerabiltzea, eta
- d) transakzioa ELIFEk jasotako likidezia eta kalitate altuko berme errealek estaltzea, titulartasun-transferentziaren erabakia dela bide.



Bigarren paragrafoko d) letran aipatutako berme errealeko merkatu-balioa beti areagotu beharko da gutxienez berrerabilitako aktiboen merkatu-balioa eta prima bat batzearen ondoriozko mailara arte.

30. artikulua. Betekizun gehigarriak txikizkako inbertitzaileen artean ELIFE bat merkaturatzeari dagokionez.

1. ELIFE baten akzioak edo partaidetzak txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatu ahalko dira, betiere ELIFEko kudeatzaile edo banatzaileak inbertsio arloko aholkularitza egokia eskaintze badie txikizkako inbertitzaileei.
2. ELIFE bateko kudeatzaileak ELIFEko akzioak edo partaidetzak zuzenean merkaturatu edo eskaini ahalko die txikizkako inbertitzaileei soilik 2011/61/EB Zuzentarauko 6. artikuluko 4. apartatuko a) letran eta b) letra, i) tartean adierazitako zerbitzuak emateko baimena baldin badauka, eta soilik kudeatzaileak Erregelamendu honetako 28. artikuluko 1. apartatuan aipatutako egokitasun-ebaluazioa egin badu.
3. Balizko txikizkako inbertitzaile baten finantza-tresnen zorroak ez badu 500.000 euroko kopurua gainditzen, ELIFEko kudeatzaileak edo edozein banatzailek, 28. artikuluko 1. apartatuan aipatutako egokitasun-ebaluazioa egin ondoren, eta inbertsio arloko aholkularitza egokia eskaini eta gero, balizko txikizkako inbertitzaileak emandako informazioan oinarrituz bermatuko du inbertitzaile horrek ez duela finantza-tresnen zorroaren %10 baino gehiago ELIFEn inbertituko, eta ELIFE batean edo batzuetan inbertitutako hasierako kopurua gutxienez 10.000 eurokoa izango dela.

Balizko txikizkako inbertitzaileak bere finantza-tresnen zorroari buruzko informazio zehatza eman beharko dio ELIFEko kudeatzaileari edo banatzaileari, baita ELIFEn egindako inbertsioei buruzkoa ere, lehenengo paragrafoan azaldu bezala.

Apartatu honen ondorioetarako, finantza-tresnen zorro batek finantza-tresnak eta eskudiru-gordailuak dituela ulertuko da, baina berme gisa aurkeztutako finantza-tresnak baztertuko dira.

4. Txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatutako ELIFEko eratze-dokumentuetan edo erregelamenduan ezarriko da inbertitzaile guztiek tratu bera jasoko dutela, eta ez zaie inolako lehentasun-traturik edo abantaila ekonomikorik emango inbertitzaileen talde edo inbertitzaile jakin batzuei.
5. Txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatutako ELIFE baten forma juridikoak ez du eragingo inbertitzaileak erantzukizun handiagoa izatea, eta ez du inbertitzaileak konpromiso gehigarriak hartu behar izatea eragingo ondarearen hasierako konpromisoaz gain.
6. Txikizkako inbertitzaileek, harpidetza-aldian eta gutxienez ELIFEko akzioak edo partaidetzak sinatu eta hurrengo bi asteetan, harpidetza baliogabetu ahalko dute eta dirua jaso ahalko dute inolako zigorrik gabe.
7. Txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatutako ELIFEko kudeatzaileak beharrezko xedapen eta prozedurak ezarriko ditu txikizkako inbertitzaileen erreklamazioak izapidetzeko, inbertitzaile horiek erreklamazioak estatu-kideko hizkuntza ofizialean edo hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu ahal izateko.

31. artikulua. ELIFEko akzioak edo partaidetzak merkaturatzea.

1. ELIFE bateko kudeatzaileak akzioak edo partaidetzak merkaturatu ahalko ditu dagokion jatorrizko estatu-kideko txikizkako inbertitzaileen eta inbertitzaile profesionalen artean 2011/61/EB Zuzentarauko 31. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egin ondoren.
2. ELIFE bateko kudeatzaileak akzioak edo partaidetzak merkaturatu ahalko ditu dagokion jatorrizko estatu-kide ez beste estatu-kide batzuetako txikizkako inbertitzaileen eta



inbertitzaile profesionalen artean 2011/61/EB Zuzentarauko 32. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egin ondoren.

3. ELIFE bakoitzari dagokionez, ELIFE bateko kudeatzaileak agintaritza eskudunei jakinarazi beharko die ELIFEa txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatzeko asmoa duen ala ez.
4. 2011/61/EB Zuzentarauko 31. eta 32. artikuluetan eskatutako informazio eta dokumentazioaz gain, ELIFEko kudeatzaileak honako hau ere jakinaraziko die agintaritza eskudunei:
 - a) ELIFEko liburuxka;
 - b) ELIFEko funtsezko datuei buruzko dokumentua, txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatzen bada, eta
 - c) 26. artikulua aipatutako zerbitzuei buruzko informazioa.
5. 2011/61/EB Zuzentarauko 31. eta 32. artikuluek agintaritza eskudunei emandako ahalmenak eta eskumenak ELIFEak txikizkako inbertitzaileen artean merkaturatzeari ere badagozkiola ulertuko da, eta Erregelamendu honetan ezarritako betekizun gehigarriei aplikatzen zaizkie.
6. 2011/61/EB Zuzentarauko 31. artikuluko 3. apartatuko lehenengo paragrafoan ezarritako ahalmenez gain, ELIFEko kudeatzailearen jatorrizko estatu-kideko agintaritza eskudunak ELIFE bat merkaturatzea debekatuko du kudeatzaileak ez baditu Erregelamendu honetako xedapenak betetzen edo ez baditu beteko.
7. 2011/61/EB Zuzentarauko 32. artikuluko 3. apartatuko lehenengo paragrafoak ezarritako ahalmenez gain, ELIFEko kudeatzailearen jatorrizko estatu-kideko agintaritza eskudunak uko egingo dio, halaber, jakinarazpen-espediente osoa ELIFE merkaturatu nahi duen estatu-kideko agintaritza eskudunei igortzeari kudeatzaileak ez baditu betetzen Erregelamendu honetako xedapenak.

VI. KAPITULUA.

IKUSKATZEA

32. artikulua. Agintaritza eskudunek ikuskatzea.

1. Agintaritza eskudunek etengabe ikuskatu dute Erregelamendu hau bete egiten dela.
2. II., III. eta IV. kapituluetan ezarritako arauak betetzen direla ikuskatzeko ardura ELIFEko agintaritza eskudunak izango du.
3. Funtzaren eratze-dokumentuetan edo erregelamenduan ezarritako betebeharrak betetzen direla ikuskatzeko ardura ELIFEko agintaritza eskudunak izango du, baita liburuxkan ezarritako betebeharrak ere, Erregelamendu honi dagozkionak.
4. Kudeatzailearen antolaketa eta xedapenak egokiak direla ikuskatzeko ardura ELIFEko kudeatzailearen agintaritza eskudunak izango du, kudeatutako ELIFE guztien funtzionamendu eta eratzeari buruzko arauak eta betebeharrak betetzeko moduan egon dadin.

Kudeatzaileak Erregelamendu honetan adierazitakoa betetzen duela ikuskatzeko ardura ELIFEko kudeatzailearen agintaritza eskudunak izango du.

5. Agintaritza eskudunek dagokien lurraldean finkatutako edo merkaturatutako inbertsio kolektiboko erakundeak ikuskatuko dituzte, egiaztatzeko ez dutela «ELIFE» izena erabiltzen



edo ELIFE bat direla aditzera eman ez dezaten, Erregelamendu hau dela bide baimenduta egon gabe eta xedapenak bete gabe.

33. artikulua. Agintaritza eskudunen ahalmenak.

1. Erregelamendu hau dela bide dagozkien funtzioak betetzeko beharrezko ikerketa- eta ikuskatze-ahalmen guztiak izango dituzte agintaritza eskudunek.
2. 2011/61/EB Zuzentarauarekin bat etorritik agintaritza eskudunei emandako ahalmen guztiak, zehapenei lotutakoak barne, Erregelamendu honi lotuta aplikatuko dira.
3. ELIFEko agintaritza eskudunak debekatu egingo du «ELIFE» edo «epe luzerako inbertsio-funts europarrak» izena erabiltzea ELIFEko kudeatzaileak Erregelamendu honetako xedapenak betetzeari uzten badio.

34. artikulua. BMEAREN eskumenak eta ahalmenak.

1. BMEAK beharrezko ahalmenak izango ditu Erregelamendu hau dela bide emandako funtzioak betetzeko.
2. 2011/61/EB Zuzentarauak BMEAi emandako ahalmenak, bidenabar, Erregelamendu honi dagokionez aplikatu beharko dira, eta 45/2001 Erregelamenduarekin (EE) bat etorritik.
3. 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) ondorioetarako, Erregelamendu hau Batasunaren egintza juridikoki loteslea dela ulertuko da, BMEARI funtzioak ematen dizkiona 1095/2010 Erregelamenduaren (EB) 1. artikuluko 2. apartatuarekin bat etorritik.

35. artikulua. Agintaritza eskudunen arteko lankidetzak.

1. ELIFEko agintaritza eskuduna eta kudeatzailearen agintaritza eskuduna, berbera ez bada, lankidetzan jardungo dira eta informazioa trukatu dute Erregelamendu honekin bat etorritik dagozkien funtzioak garatzen.
2. Agintaritza eskudunek elkarrekin lankidetzan jardungo dute, 2011/61/EB Zuzentarauarekin bat etorritik.
3. Agintaritza eskudunek eta BMEAK elkarrekin lankidetzan jardungo dute Erregelamendu honekin eta 1095/2010 Erregelamenduarekin (EB) bat etorritik dagozkien betebeharrak.
4. Agintaritza eskudunek eta BMEAK beharrezko informazio eta dokumentazio oro trukatu dute dagozkien betebeharrak betetzeko, Erregelamendu honekin eta 1095/2010 Erregelamenduarekin (EB) bat etorritik, bereziki Erregelamendu honen arau-haustek antzeman eta zuzentzeko.

VII. KAPITULUA.

AZKEN XEDAPENAK

36. artikulua. Batzordeak eskabideak izapidetzea.

Batzordeak ELIFE-ek aurkeztutako EIBren finantzaketa-eskabide guztiak izapidetzeko prozedurak lehenetsi eta azkartuko ditu. ELIFE-ek aurkeztutako EIBren finantzaketa-eskabideak onartzeko beharrezko txosten edo irizpenak ematea azkartuko du Batzordeak.

37. artikulua. Berrikustea.

1. Beranduenez 2019ko ekainaren 9an Batzordeak Erregelamendu honen aplikazio-berrikuspena abiaraziko du. Berrikuspenak, batez ere, puntu hauei erreparatuko die:



- a) 18. artikulua eragina;
 - b) inbertitzeko baliagarriak diren aktiboen gutxienez %70eko atalasea aplikatzeak aktiboen dibertsifikazioan duen eragina, 13. artikuluko 1. apartatua ezarritakoa;
 - c) ELIFEak Batasunean merkaturatzearen irismena, baita 2011/61/EB Zuzentarauko 3. artikuluko 2. apartatua aplikagarria zaien IFAKen behin-behinekotasuna;
 - d) baliagarriak diren inbertsio eta aktiboen zerrenda eguneratu beharraren neurria, baita dibertsifikazio-arauak, zorroaren osaera eta mugak ere, mailegua eskudirutan hartzeari dagokionez.
2. BMEari kontsulta egin ondoren, eta 1. apartatua aurreikusi bezala berrikusi eta gero, kapitalen merkatuak batu eta 1. artikuluko 2. apartatua adierazitako helburuak lortzen Erregelamendu honek eta ELIFE-ek egiten duten ekarpenari buruzko ebaluazio txostena aurkeztuko du Batzordeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren aurrean. Txostenarekin batera, hala badagokio, proposamen legegilea ere aurkeztuko da.

38. artikulua. Indarrean sartzea.

Erregelamendu hau Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau egunera sartuko da indarrean. 2015eko abenduaren 9tik aurrera izango da aplikagarria.

Erregelamendu hau bete beharrekoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu-kide bakoitzean.

Estrasburgon emana, 2015eko apirilaren 29an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea,

M. SCHULZ

Kontseiluaren izenean,

Presidentea

Z. KALNIŅA-LUKAŠEVICA